



**Barra gaineako  
artelanak ate joka**



# KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

## KOMUNITATEAK

- Auzo komunitaen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

## AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia  
Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Catering Azeri Jana

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen  
aldezkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – Etorri zaittie Euskeriaren Lorategixa osatzera! –

Datorren abenduaren 3an Euskeraren Eguna ospatuko da, eta Eibarren be egun berezi hori bihar dan moduan ospatzeko hainbat ekitaldi egingo ditugu, bezperatik hasita. Egun horretan, abenduaren 2xan, barixakua, egun osoko mintzodromuan hartuko dabe parte ikastetxe guztiek. Arratsaldian, barriz, Euskeraren Lorategixa izeneko horma-irudixa osatzeko aukeria edukiko dogu herritarrok. "Euskeria erein, zaindu, emon" izenburua dakan horma-irudixa koloretako lorez beteko dogu, eta ikusgai egongo da datozen egunotan Txaltxa Zelaiko goiko

aldian. Eibarko ikasliek ikastetxietan bertan egingo dittue lorak, baiña egunian bertan Untzagan be egongo da lorak egitteko aukeria. la danon artian Euskeriaren Lorategixa osatzia lortzen dogun! Eta hurrengo egunian, abenduaren 3an, zapatua, Jon Tirapuren "Andonik mugitzen nau" erromeriarekin dantza egitteko aukeria egongo da, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Untzagan egongo dan karpan.

Onguan be eibartarrok euskeriari babes osua eskinduko detsagula ziur gaoz!

Eibarko Euskalgintza

## – Etxian izanda, zertara kanpora billa? –

Itturri onetik dakigu Eibar Foball Taldia terrenuen bila dabillega Durango aldia, hiru foball-zelai eta beste instalaziño batzuekin kirol konplejua egitteko asmua-rekin. Ez dakigu, Eibarkuak izanda, zertara datorren herritik kanpo jua bihar hori hamen oiñarrixa dakan jardun bateri ekitteko. Gure belarrietara heldu danez, ez dakitt zein inmobiliarixatik esan izan ei dabe ha-

mengo terrenuak garestixaguak dirala. Zelan esan leike halakorik guri iñork ez badesku preziorik galdetu? Herrixan bertan halako proiektueri erantzuteko nahiko bertute -eta terrenuak, jakiña- badaukagu, zertara-ko dator hamendik kanpora juatia? Zergaittik ez joku-eto eibartar guztion mesederako?

Joxan Orbe

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LEGIA BETE.-** Eguneroko edo ohizko betebeharrak egitea, batez ere jatorduk. "Hurrengo goizian, goizeko mahaiko legiak bete ondoren, arda u botia gizen-gizen ipinitta aldats gora abixau zan".

**LEGIA EGIN.-** Eguneroko edo ohizko betebeharrak egin direla adierazteko. "Gaurkuagaittik, legia egin dogu behintzat".

## astean esanak

"Orain dela urte batzuk elikadura enpresa batek egindako inkesta batean gizonetako gehienek xerra aukeratu zuten eta emakumezkoek entsalada. Gaur errepikatuz gero, batzuek zein besteek entsalada aukeratu zuten. Gizonetakoendako gaur egungo ia produktu guztiek *target* bera dute: klase erdi goikoa da, gay ere izan daitekeena, baina emazteari zelan aitortu erabaki bitartean beste abrigo bat erosiko duena. Emakumeentzako produktuak, bestalde, Beyoncerekin identifikatuta daudenentzat dira; horregatik erosten dute kamiseta bat. Neskameak plantxatzeko!"

(XAVI SANCHO, ZUTABEGILEA)

"Orain ez dago ezkerreko aldatibata sinesgarririk munduan: indarrean den *statu quo* neoliberalaren eta eskuin mutur xenofoboaren artean jokutzen ari da partida. Ezkerrak aukera izan du neoliberalismoaren aurrean aldatibata gisa aurkezteko: eduki zuen Grezian, eduki zuen brexit-arekin eskaintza bat egiteko eta izan du abagunea Europako errefuxiatuen krisi humanitorioan beste aldatibata ausartago bat erakusteko. Hurrengo hitzordua Frantzia da, eta Trumpena ikusita, inor gutxi harrituko da Marine Le Penek irabazten badu. Olatua aprobetxatu besterik ez daukate FNko buruzagiak eta Austria, Alemania eta Herbehereetako haren adiskideek"

(IÑAKI PETXARROMAN, KAZETARIA)

"Orain ez da lehen bezala heroina kontsumitzen, baina speeda, kokaina, alkohola eta haxixa daude gizartean. Ostalaritzan edo tabernetako munduan badaukigu alkohola eta kokaina daudela. Gaur egun ez dago alarma sozialik, baina droga oraindik kontsumitzen da; eta kontsumoa ez da jaitsi, nahiz eta ez den lehen adina hitz egiten. Orain, gainera, sortu dira substantzia gabeko menpekotasunak ere: ludopatía arazoa handia da gazteen artean. Interneteko jokoein, pokerrarekin eta apustuekin geroz eta jende gehiagok du arazoa. Urteak pasatu ahala substantziak aldatzen dira, baina ez drogen kontsumoa"

(ESTEBAN PEREZ, PSIKOLOGOA)




ENRIKE SOSOLA

## Manuel eta Txomin (Isabel eta Maria)

Leongo herriskatik Bizkaiko mehatzaldere jo zuen Manuelen sendiak bizitza hobearen bila. Han burdina agortu zenean, Eibarko tailerretan jarri zuen begia gazteak, bera bezalako milakarekin batera. Bizkaitik zekarren komunismoaren fedea. Zapaldu eta esplotatuaren klase-kontzientzia argia zuen Manuelek. Gerrako hiru eta ondorengo 10 urteko espetxeak ez zioten su gorria itzali. Santiago Carrillo telebistan azaltzean "Que bien habla el camarada Santiago" entzungo zenion. Harro bere ideologiaz eta borrokari esker lortutako aurrerapenez. Alfak eraikitako pisua eta erretiroarekin hil zen burua galdu eta sei urtera. Bera eta beretarren historia idatzia eta aitortua izaten ari da azken urteetan, liburu, dokumental, fakultate eta plazetan. Bikain. Egin zaio azkenean justizia maketo belarrimotxari. Txomin ere Bizkaitik etorri zitzaigun Eibarrera. Munitibarko jaiotetxean denentzako nahikoa janik ez eta gure herrian fundizioek hustutako baserrian jarri zen bizitzen, andra eta ume. Erretero, beste milaka baserriarren antzera. Gerran sei urte egin zituen, EAJko gudariekin hasieran, gero... batek daki! Higuinduta amaitu zuen eta politikariei botatzen zizkion bere sufrikarioen ardura denak: "ai-ai, ume kuittauok, zuek demasekuak ikusi bihar ditzuzue" zioen telebistako notizien aurrean, bilobei begira. 80 urte zituela hil zen Txomin ortulanean, bero-golpe batek erasanda. Harro bere euskalduntasunaz, ez zuen sekula zapaldu-sentipenik izan, Jainkoari eskerrak beti jator, beti esaneko. Herentzian zazpi behi eta hiru txahal laga zituen, besterik ez. Gaur ez da inor bizi bere baserrian, espekulatuzaileen hatzapparretan basoak irentsiko egingo du. Inortxok ez du idatzi bere moduko baserriar-maizterren historia, ez museorik, ezta dokumental sakonik egin, ezta monumenturik herrietako plazetan jarri. Ahanzturan. Ene!! Eta Isabel? (bakar bakarrik, seme-alabak hazitako Manuelen andre zintzoak). Eta Maria? (Txominekin ezkondu eta familiako beste 10 lagunen neskame apalak). Ahaztuta. Nik ere bai.

## IK4-Tekniker, 4.0 Industriarako gertu

Aste honetan Donostiako Kursaa-len egin dan Basque Industry 4.0 dalakuan parte hartu dau IK4-Teknikerrek, robotika arluan egitten daben biharra erakusten. Eibarko teknologixa zentrukuak pertsonekin batera alkarlanian jarduteko ahalmena daukan robotaren prototipua eruan eben ekitaldira, holan jendiak robota biharrian ikusteko aukera izateko. Robotak jendia zein edozelako objektuak detektatu eta identifikatzeko gaitasuna izan deian, informaziño eta komunikaziño teknologixetako azken barrittasunak erabili dittue. Prototipuak etorkizuneko fabriketan gero eta garrantzi haundixagua eukiko daben eskaeriari erantzun nahi detsa; izan be, IK4-Teknikerren 4.0 Industria izenarekin ezagutzen dan horretara bideratutakuak lantzen hasitta dagoz, etorkizuna hortxe dagualakuan.



asteko  
35  
datua

*lagunek hartuko dabe parte udalak lana topatzen laguntzeko bi programatan. Asmua %50 biharrian hastia da eta eskaeriak azaruaren 28ra arte egin leikez, Pegoran.*

## Udala Memorixaren Egunarekin bat

Aurreko eguenian, azaruaren 10ian, alkarretaratzia egin zan Untzagan, Memorixaren Egunaren harira. 2010eko maiatzaren 24an, Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzaren izenian Barne Saillak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusixak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) erabagi eben biktima guztiak gogoratzeko eguna azaruaren 10eko eguna izatia, "hain zuzen be halako egunian terrorismuaren biktimarik egon ez dalako".



## Kontuz Endesa-ko saltzailiekin

Eibarko Konsumitzaillien Udal Bulegotik bialdu daben oharraren arabera, Endesa-ko komertzialak herrixan, etxerik etxe dabiz, gasaren kontadoriak aldatzeko siñadurak jasotzen, baiña guzurretan dabizela abixau nahi detse herrittarreri, horrek siñadurok gas eta elektrizidariaren kontratuak aldatzeko erabiltzen dittuela. Horren aurrrian, eta nahi ez dala kontratu aldaketarik ez egitteko, hainbat aholku emon dittue: ez laga iñori gas edo elektrizidariaren fakturarik; akreditaziñua eskatu; informaziño argixa euki ezian ez siñatu iñongo agiririk; edozelan be, siñatu ezker 14 eguneko epia dago bertan behera lagatzeko; eta zalantzarik izan ezker Udaltzaingora deittu.



## Geltoki barrixaren inguruko inkestak

Etorkizunian Eibarko autobus geltokixa nun kokatu zihezteko asmuarekin udalak parte-hartze prozesua martxan ipiñiko dabela emon dau aditzera. Azaldu dabenez, "aholkularitza bateri ikerketia egitteko eskatu jako, hiriarteko autobus zerbitzuaren mugikortasuna, autobus-terminala kokatzeko aukeria eta sor leikiazen aldaketak zelako eragiña euki leikien aztertzeko. Ikerketarekin batera inkestak egingo jakuez autobusa erabiltzen dabeneri zein Eibarko biztanleri orohar". Kokapena zihazteko prozesuaren barruan, lehen pausua Leber Planificación e Ingeniería enpresak egingo dabenean ikerketiak osatuko leuke eta horren parte izango dira be



herrittarreri euren lehentasuneri buruz galdeztzeko egingo dittuen inkestak. Abenduaren 2ra arte 400 bat inkesta egitteko asmua dake, batzuk autobus geltokixetan daguazeneri galdetuta eta beste batzuk, barriz, herriko kaltetan dabizeneri galdetuta. Ikerketia EH Bilduk aurtengo aurrekontueneri egindako zuzenketa baten ondorixua da.

## Geltoki intermodalari buruzko EAJ-ren hitzaldixa

Astelenenian, 19:00etatik aurrera, EAJ-PNV-kuak hitzaldixa emongo dabe Portalean, "Eibarko tren geltokixa intermodalizatu eta autobus geltokixa bertaratzeko proiektua" herrittarreri azaltzeko asmuarekin. Ekitaldixa interesa daken herrittar guztierri zabalik egongo da eta, aurreratu dabenez, jardunaldixan argazkixak, mapak eta fotomontajiak proiektuako dittue, "baita proiektua angulu guztietatik erakusten dabene bideua be". Jeltzaliak aurkeztuko dabene proiektuak, bestiak beste, 12 autobusendako tokixa izan leikian geltokixa aurreikusten dau.



azaltzeko asmuarekin. Ekitaldixa interesa daken herrittar guztierri zabalik egongo da eta, aurreratu dabenez, jardunaldixan argazkixak, mapak eta fotomontajiak proiektuako dittue, "baita proiektua angulu guztietatik erakusten dabene bideua be". Jeltzaliak aurkeztuko dabene proiektuak, bestiak beste, 12 autobusendako tokixa izan leikian geltokixa aurreikusten dau.

## autuan

### Moda desfilea Untzagan

Untzagako jubilau etxeak, 85 urtetik gorakeri egitten detsen omenaldixaren harira, gaur arratsalderako moda desfilea antolatu dau El Corte Inglesaren babesarekin: 18:00etan hasiko da eta atsedendaldixan Trio Medianoche taldiak emanaldixa eskinduko dau.

### Herri batzarra

Abian prozesua amaituta erabagi zanari jarraituta, Sortu atzera be eratzen dihardue. Zohardia ponentziaren inguruko eztabaida 22xan egingo dabe, 19:00etan, Arrate Kultur Elkartean egingo dan herri batzarrian. Ahalik eta jende gehixenak parte hartzeko teknologixa barrixak erabiliko dittue (partehartu.sortu.eus orrixan sartu eta izena emonda). Batzarraren aurretik, 18:00etatik aurrera inskripziñuak egitten laguntzeko prest egongo dira.

**Funeraria-Ehortzetxe Mugica**

**EIBAR**

Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**

Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi

## GAIZKA VITORIA ARANO




Gazte joan zara gure ondotik,  
Gaizka, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.

ARANO SENDIAK

## kale izena pertsonaiaren izana

**ROMUALDO GALDOS** Eibarren jaio zen 1885eko otsailaren 7an, Ospitale kalean, San Andres parrokiaren aurrealdean zegoen etxe batean, Godoyrena deitzen zioten etxea. Euskaltzale porrokatua, Jesusen Lagundian 1904an sartu zen. Oñan egin zuten apaiz 1917ko uztailaren 30ean. 34 urte zituela, Jesusen Lagundiak Erromara bidali zuen Aita Santuaren Institutu Biblikoan ikastera; Biblian espezializatu zen. 1922an amaitu zituen bere ikasketak "cum laude" batekin. Oñara itzuli eta hebreera eta bibliako grekoa erakusten hasi zen, baina aldi berean bere doktoretza-tesia prestatzen hasi zen, latinez, "Tobiten liburua Bulgataren testuaren arabera" gaia hartuta. Tesia Erroman aurkeztu zuen Bibliaren Batzordearen aurrean; 1926ko urtarrilaren 17an liburu santuen Doktore titulua jaso zuen. Romualdo Galdos izan zen gazteleraz hitz egiten duten herrialde guztietako lehen Doktorea Liburu Santuetan. Eibarko Seme Ospetsu izendatu zuten 1926ko urriaren 6an. Urte askotan irakasle moduan jardun zuen Oña, Marneffe eta Erroman. 1953an hil zen Eibarren.



JONE LOPEZ  
ZURUTUZA



### Dibujo Eskolarekin elkarlanean

## Matxismua umoriarekin borrokatzen

**Barrezka pasau eben "Macho Maris" showak irauten dabena** ordubetia aurreko barixakuan hori ikustera Portalera juandakuak. Juanma Rodriguezek eta Markos Gimenezek sortutako lanak kode matxistak apurtzeko ahalegiña egiten dau, beti be gaixeri umoriarekin helduta.



Jendiak gogoz jarraitu zittuan Juanmak eta Markosek esandakuak. **Maialen**

## Eibar Sasoian zabaldu dabe Isasin

Aurreko asteko eguenian Eibar Sasoian jendiaren ongizate osorako espazioa inaugurau eben. Bost partaide ditte alkargune horrek: Isasi Masaje Zentrua (Alberto eta Ruben Gonzalezekin), Ane Campos dietista, Feelings of Beauty (Maidar Carrasco estetizista), FIT Corpore (Ionander Astigarraga personal trainer-a) eta Akorde (Idurre Albizu coaching-a). Arlo desbardin baiña konplementarixuak diran

esparruetako enpresak alkartu dira hor, "jendiaren osasunerako soluziño aberatsaguak" eskintzeko asmotan. Inauguraziño ekitaldixan Andretxeako alkartiak izan ziran, hainbat kirolari eta kirolari-ohi ezagunekin batera: Agustin Aranzabal, Raul Navas, Aitor Seguin, Oskar Artetxe, Aimar Olaizola, Nekane Muguruza, Elene Varela, Igor Astarloo, Aitziber Urkiola, Markel Alberdi eta Asier Cuevas tartian.



## Arkitektura industrial modernua ezagutzen

Hirikiten hirixaren ikerketarako alkartiak, Euskal Herriko Arkitektuen Elkargo Ofizialarekin alkarlanian, bixarko "Eibarko mugimendu modernoko arkitektura industrialaz ezagutuz" izenburuko ekitaldixa antolatu dau: Biharran espazioan (Ubitxa 16-18) hasiko da, goizeko 10:00etan, hitzaldi labur batekin. Jarraixan parte hartzera animatzen diranak kalera urtengo dira, ibilbide bateri jarraituta Armagintza Museoraiño juateko. Ekitaldixa museuan bisita eginda agurtuko dabe (13:30ak aldera). Bixarko ekimena Docomomo Iberikoaren IX. biltzarraren programaziñuaren barruan antolatu dabe. Plazak mugatuak dira eta izena emoteko hirikiten@gmail.com helbidera idatzi bihar da.





## Diktadurako biktimendako justizia

Eibarko Udalak eta Frankismuaren Krimenen aurkako Kereillaren Euskal Plataformiak bat egin dabe, Francoren diktadura sa-soiko biktimengaitik justizia eskatzia adostuta. Hitzarmenak hiru atal garrantzitsu biltzen ditu eta hor ziheztu dittue, bestiak beste, Argentinako jurisdikziñuan zabalduetako prozeduran udala akuzaziño gisa aurkeztuko dala gure udalerriko frankismuaren biktimetikiko; Espaiñiako epaitegixetan ekimen judizialak zabaltzeko aukeria izatia, erantzukizun penalak eta egon leikian beste edozelako erantzukizun argitzeko; eta Udalak bihar diran bittartekuak erraztia, gure udalerriko frankismuaren biktimen inguruko biharrezko dokumentaziñua prozedura penalarri eransteke.

## Otordu osasuntsuen taillar arrakastatsua

Osasuntsu jaten ikastiaren garrantziaz jabetuta, hamabost gurasok hartu dabe parte ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako ikasturuan. Zalao Otaduyk gidatu ditu bi saiua, eta bertan, umiendako osasungarriak eta oso goxua diran hainbat errezeta egiten ikasi dabe, bertoko produktuak, ekologikua eta integralak erabillita.



## 9 enpresa Akademixen Azokan

Aurreko asteburuan Untzagan egin zan Eibarko II. Akademixen Azokan herriko 9 enpresa egon ziran euren eskintza ezagutzera emoten: Abbie White English School, S&P Idiomas, Nekane Pastor Akademia, Ludoteka Zorionak, Link Idiomas, Talleres Artístico-Creativos Maite Arriaga, Itzamna Akademia, Eibar Idiomas-Hizkuntzak eta Nenoos. Udaleko Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza Saillaren ekimenez egin zan ferixan stand-a ipintziarekin batera, euretako batzuk taillarrak be preparau zittuen, holan jendiak erakusten dabena bertatik bertara ezagutzeko aukera izateko.



*Unai Alberdi Castro*

*Ez zaituqu inoiz ahaztuko  
ez zaituqu inoiz galduka  
gure bihotz barrenean  
eramango zaituqu betiko.*



**ikasle, guraso eta langileak**





Sanandresak gerturaten doazen neurrian, janariarekin lotutako gaiak ere garrantzi berezia hartzen doaz gure herrian eta, horrekin batera, arlo horretako lehiaketan sasoian sartzen gara. Hilaren 11tik 27ra arte **Debabarrena Tripontziak** bere hirugarren edizioa bizi du; bihar Eibarko 1. **Berakatz Zopa txapelketa** jokatu da 12:00etan Untzagan; astelehenean elikagai beganoen inguruko **hitzaldi-dastaketa** egingo da Arrate Kultur Elkartearen; eta martitzenetik eguenera (22,23 eta 24) Eibarko Tabernarien Arteko XIII. **Pintxo Lehiaketa** izango da.

**T**abernarien artean jokatzen den **San Andres Saria** guztiz finkatuta dugu San Andres jaieran eta badira hamahiru urte egiten dela. Aurten 26 tabernek eman dute izena, jarraian dituzuen izenekin: African Haritza (Burrito Haritza), Agiñaspi (Porru Otarra), Amesti (Ziriako), Arkupe (Crema de Hongos), Asteleña (Timbal de Calabacín), Aterpe (Arropa Zaharra ta Txapela), Batzoki (Txotx), Beleko (Beleko Tortilla, Birjiñape (Go-Be), Bossa (Margarieta), Boulevard Degustación (Degus), Depor (Agurra), Foxtex (Koktel de Hongos), Hirurok (Korurih), Ipur (Sardina Ahumada), Jantaedan (Boilurrezko Arrautza), Kontent (Beti Kontent!!!), Koskor (Mariskada), Kultu (Itsasotik Ortura), Lau Bide (Bide Goxo), Oishi (Red Hot Txerri Pipes), Ongi Etorri (Paquetitos de Calabacín), Paulaner Bierhaus (Sensaciones), Sutondo (Udazken Haizez), Trinkete (Bakailu-Meta) eta Txoko (Bakalao Estilo Txoko). Epaimahaiak hiru egunetan, hasi martitzenean eta eguenean amaitu, dastatuko ditu prestatutako pintxo horiek irabazlea erabakitzeko lan zail horretan.

Azaro Gastronomikoaren barruan, Arrate Kultur Elkarteak antolatzen duen (Udala, herriko ostalaritza eta Eibar Merkataritza Gune Irekiaren laguntzaz) lehiaketa hori hasi bezperan **hitzaldi-dastaketa** izango da Kultu bertako Topalekuan. Olaia Blancok eta Oskar Trebiñok "Elikagai beganoak. Proteinak nundik" gaiaren inguruan jardungo dute, 19:00etan hasiko den ekitaldian. Parte hartzeko interesa dutenek arratekultu@gmail.com helbidera jo dezakete.

Aurtengo berritasuna Eibarko Sare elkartearen eskutik dator, lehenengo aldiz antolatuko den **Berakatz Zopa Txapelke-**

**tarekin.** Ibon Muñoa herriko presoaren egoera salatuzko **#StopDispertsioa, Ibon ETXERA!** kanpainaren barruan kokatu dute zapatu eguerdian Untzagan jokatu den lehiaketa. Bikoteka egingo da eta, izena ematearekin batera (Deporreko tabernan), 10 euro ordaindu beharko dute parte-hartzaileek. Antolatzaileek parte hartzeko gonbidapena bidali dute herriko elkarte gastronomiko guztietara. Irabazleek 150 euro eta bi txapel jasoko dituzte, bigarreneok 100 euro eta hirugarrenek 50. Behin sariak banatuta, zopak Untzagan bertan hartuko dira herri-degustazioan.

Eta egun batzuk daramatza **Debabarrena Tripontziak Klub Gastronomikoa**ren hirugarren edizioak. Azaroaren 11n hasi zen eta 27an amaituko den ekitaldi horretan, klub horretako kide diren eskualdeko hainbat estable-

zimendutan menu eta pintxo bereziak eskaintzen dira prezio berezian: menuak 25 eurotan eskaintzen dira eta pintxoak 5 eurotan (bi pintxo eta bi edari). Aurten Elgoibarko Belaustegi, Debako Urgain eta Calbeton, Itziarko Kanala, Lasturko jate-txea eta Mendaroko Txokolateak hartzen dute parte, gure herriko Azitain erretegia eta Kultu tabernarekin batera. Establezimendu bakoitzaren eskaintza ezagutzeko interesatuok [debabarrenaturismo.com](http://debabarrenaturismo.com) webgunera jo dezakezue. Horrekin batera, lehiaketak antolatu ditu Debegesak sare sozialetan, Debabarrena Turismoren profilen bitartez (Twitterren, Instagramen eta Facebooken), erabiltzaileen argazkiak partekatuzeko asmoarekin. Parte hartzen dutenen artean sari bikainak zozketatuko dituzte: Tripontziak egonaldiak, bi lagunendako Tripontziak Menuak eta Mendaroko Txokolateen produktu-sortak. Eta **Bakilauaren Lehiaketa** biak ate joka!



Birjiñape



Bossa



Boulevard



Depor



Ipur



Jantaedan



Kontent



Koskor



Kultu



Paulaner



Sutondo



Trinkete



Txoko



African Haritza



Agiñaspi



Amesti



Arkupe



Asteleña



Aterpe



Batzoki



Belako

**PINTXO LEHIAKETA**



# gremioen gida



943-206776



## ANTENAK

**BALATZ** c.b.  
Instalakuntzak eta konponketak  
antena - telebista  
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08  
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac **trinmer**  
Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com  
TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## ARKITEKTOAK

olatz etxeberrila martinez ARKITEKTOA  
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832  
estudio etxeberrila  
arkitektura, hirigintza eta peritazioak  
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak  
Mekola, 7 - behea  
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com

## AROTZAK

**ulmar**  
S.L.  
metalezko eraikuntzak  
aluminiozko eta PVC-ko arotzegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar  
Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ELEKTRIZITATEA

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.  
Ego Gain, 9 ac  
ego.luz@hotmail.com  
677 51 24 62  
630 95 73 45  
943 20 06 97

943 530 356  
688 674 242  
669 934 964  
**electricidad iparelek** s.l.  
INSTALAZIOAK ETA  
MANTENIMENDUA  
iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

**THELECER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRITAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS  
ERAKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA  
info@ajtoficina.com Tf. 943 80 12 30  
**AJT** zihurtasuna s.l.p.  
Barrena, 6 - behea ezk.

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**  
PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK  
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-  
605 713 168 943 744 019

## GARBIKETAK

**Limpieza  
Multiservicio  
Eibar**  
Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua  
Tfnoa. 943 031 082  
Mobila 688 609 171  
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21-1.F

**TREJO**  
GARBIKETAK S.L.  
Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soraluze  
Garbiketa eta  
mantenimendua

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.  
Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun  
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## KRISTALAK

**ACHA** Kristaldegia  
TAILERRA: ERREKATXU, 3an  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

## PINTURAK

**baglietto**  
PINTOREAK  
Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa  
Errebal, 21  
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

**MALVAR**  
PINTURAS  
Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA  
OROKORREAN  
BARNE eta KANPOKO  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...  
Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
victor-fraiz@hotmail.com

Kokein talde eibartarrak lau urteko isiltasan diskografikoa apurtu du **Lurpekhariäk** diskoarekin. Hori gutxi balitz, 9 kantuz osatutako diskoaren aurkezpena egingo dute Untzaga plazan datorren astean, azaroaren 25ean, Sanandresetako egitarauaren barruan. Egun horretatik aurrera egongo da diskoa kalean. 15 urteko ibilbidea eta gero taldearen bosgarren diskoa da eta, musikari dagokionez, rock ildoan segitzen dute. Kantu batzuk distortsioz beteta datoz, eta beste batzuk garbiak eta melodikoak dira.

**- Nolako sentimenduak eta emozioak pizten dira lan berri bat norberaren herriko plazan aurkezteko egun gutxi falta direnean?**

Plazetan jotzen duzunean badago berti-go antzeko bat. Herriko plaza, aurkezpena... ez diozu handitasun larregirik eman nahi, baina eguna hurbiltzen doan neurrian, konturatzen naiz garrantzia doala hartzen, eta ilusioa eta urduritasuna hor daudela. Eibarko plaza ez da erreza guretzat. Dena dela, karpa jarriko dute, eta txosna bat Jaiak Herrixak Herrixandako taldekoek, eta horrek lagundu egingo digu. Espero dugu, Eibarren bertan gaudenez, jendea animatzea. Guk asko disfrutatzen dugu eszenatoki gainean, ezin da momentu horietan sentitzen duzuna hitzekin adierazi eta oso pozik gaude diskoa gure herrian estreinatzen dugulako.

**- Nola joan da grabaketa? Eduki aldetik berritasunik edo aldaketarik ikusiko dugu?**

Abesti batzuetan jendeak segiduan ikusiko du gu garela, baina beste batzuetan berahala ikusten da orain dela 4 urte aurreko diskoarekin hasitako bide indartsuagoa. Nahi gabe horretara jo dugu gehiago, entsaiatzen dugunean abestiak ateratzen joaten dira eta gero gustukoago ditugunak aukeratzen ditugu. Abesti batek benetan merezi duela ikusten dugunean jarraitzen dugu horrekin aurrera. Instrumentazioak Tolosako Bonberenea estudioan grabatu ditugu Karlos Osinagarekin eta oso ondo ulertu du zer nahi genuen. Ahotsak Donostiako REC grabaketa estudioan grabatu ditugu. Azken honetan Lete gure bateriak egiten du lan, eta gertutasun honek asko laguntzen du ahotsarekin beste xarma bat lortzen. Diskoa rockeroagoa da, azkarragoa, baina kantu

## ZALOA URAIN (KOKEIN TALDEKO ABESLARIA):

# "Oso pozik gaude disko berria gure herrian estreinatzen dugulako"



lasaiak ere badaude. Indarra, hala ere, abesti lasaiagoetan ere jartzen dugu beti. Dilema handia izan dut beti indarrak hitz egiterakoan. Badaude abesti lasai batzuk, hain elektrikoak ez direnak, baina askoz ere gogorragoak izan daitezkeenak, hor jartzen duzun sentimendua oso handia delako. Mantendu ditugu gure abesti lasai horiek edo ez hain azkar horiek, baina

erritmo azkarrekin aurreapausu bat eman dugu, batez ere ahotsaren inguruan. Oraingoan erritmo azkar horietan ahotsa abestietan oso ondo barneratzea lortu dugu. Diskoa grabatu aurretik, instrumentazio guztia eta ahots guztiekin simulazio edo maketa antzeko bat egin genuen. Hori entzutean irrifarrea irten zitzaigun eta lan ona zela ikusi genuen. Horretan oina-

rrituta gero aldaketak egin ditugu diskoa grabatzerakoan, eta asko disfrutatu dugu, gozamina bat izan da.

**- Beraz, pozik zaudete egindako lanarekin.**

Ikusi beharko da jendearen jarrera, baina uste dut asmatu egin dugula, eta oso pozik gaude emaitzarekin. Bost diskoetatik hau xe da gehien disfrutatu dudana. Pertsonalki ahotsarekin ere ikusten dut ibilbide bat noala egiten; adinarekin segurtasuna hartzen duzu, lotsa uste dut aspaldi galdu nuela abesteko orduan, beldurra kentzen duzu. Betiko abestietan, geldoagoetan eta sentimentalagoetan, oso gustora nago, beti bezala, baina abesti kañeroetan oso ondo ikusten dut nire burua. Gainera beti izan da asko gustatu zaidan estiloa. Poliki-poliki gure gustoa definituz joan dira.

**- Nolako gaiak landu dituzue?**

Oraingoan Jatsuk bi kantu idatzi ditu eta besteak nireak dira, baina denon ekarpenak eta ideiak egon dira. Gutako batek bizitako esperientzia gogor bat agertzen da, eta hau bereziki polita da. Gai aldarrikatzaileak ere badaude, eta baita sexuari buruzko bat ere. Momentua aprobetxatzeko garrantziari buruz eta sentimenduari buruzkoak ere idatzi ditugu. Letrekin ere pozik gaude. Idaztea sentimenduak kanpora ateratzeko modu ezinhobea da. Letra batzuk ilunak izan arren, nik diskoari baikortasun handia ikusten diot. "Orain da momentua, aprobetxatu egin behar dugu, aurrera goaz", hori da mezua. Gu ere, talde bezala, oso momentu onean gaude eta hori uste dut diskoan ondo isladatzen dela.

**- Aurreko diskoa biniloan atera zenuen. Oraingoan bide horretatik jarraitu duzue?**

Aurreko diskoan gure kontu hartu genuen ekoizpena eta biniloan ateratzeko ametsa bete genuen. Orain CD formatoan eta biniloan, biak batera aterako ditugu. Gu oso binilozaleak gara; soinua desberdina da, beste xarma bat dauka. Plataforma digitaletan ere izango da. Azken finean, hainbeste maite duzuna, horrenbeste pa-



Galder Izagirre

**Kokein taldeko Jatsu (baxua, teklatuak, theremina), Txixes (gitarra), Zalao (ahotsa), Lete (bateria eta ahotsa) eta Iker (gitarra). Azaroaren 25ean Untzaga plazan izango dira lan berriarekin.**

sioarekin egin duzuna jendearekin elkarbanatu nahi duzu. Zenbat eta jende gehiagorengana heldu, hobeto. Sanandresetako kontzertua eta gero, abenduaren 3an Durangoko azokan joko dugu, eta abenduaren 16an Tolosan. Donosti, Bilbo, Gasteiz, Eorri eta Errenterian ere egongo gara, oraindik datak zehaztu gabe badude ere.

**- 15 urte daramatzazue elkarrekin, eta nahiz eta bakoitzak bere lana eta bizitza izan –batzuk Eibartik kanpo bizi dira–, aurrera jarraitzen duzue...**

Aspalditik gara lagunak eta gauza asko bizi izan ditugu elkarrekin. Disko honetan ikusten dut guztiz bat eginda gaudela bostok. Amankomunean daukaguna da denok oso musikazaleak garela, eta musika pasioa dela guretzako, bestela ezingo ginen 15 urtean elkarrekin egon. Oso momentu onean geunden gure artean, eta disko honen grabaketak oraindik gehiago bildu gaitu. Ez da erreza, ordutegiak arraroak dira, gauzez entsaiatzen dugu, kontzertuak gabean dira.... baina egin daiteke. Denbora asko behar da, guk geuk egiten dugu dena, baina poztasun handia ematen dizu eta

konpentsatu egiten du. Ni ezingo nintzateke bizi musikarik gabe.

**- Taldeko abeslaria eta emakumea izanda, nolako izan da urte hauetan bizi izan duzun ibilbidea?**

Hasieran gogorragoa izan zen. Orain neska gazte gehiago dago abeslari moduan, baina gu hasi ginenean Euskal Herrian 3 edo 4 neska besterik ez zegoen abesten. Exigentzia askoz ere handiagoa zegoen gurekiko. Urte horiek arraro samarrak izan ziren niretzako; beti gustora, taldearen babes eta elkartasuna beti izan dudalako, baina presio hori argi eta garbi somatzen zen. 40 urterekin, pasio berarekin edo handiagoarekin jarraitzen duzunean, ideiak hain garbi dituzunean, zu zeu izateko beldurrik ez daukazunean... askoz ere gehiago disfrutatzen duzu. Ibilbide pertsonal hori sakona izan da. Segurtasunean irabazi dut. Azken aldian emanaldi akustikoak eman ditugu, gitarra, bajistak eta nik, eta formato horretan ere asko disfrutatzen dut. Eta horrekin bete dugu kontzertuen zulotxo. Orain berriro kontzertuekin hasteko desiatzen gaude.



*Eli Pagola (San Andres bertso paper lehiaketako irabazlea)*

## "Adrenalina puntu izugarria da bapatean aritzea"

Aste honetan jakin ditugu San Andres bertso paper lehiaketako irabazleen izenak. 16 urtetik gorakoen kategorian Eli Pagola izan da garaile. Hau ez da lehenengo aldia 21 urteko gaztearentzat, iaz saria berdina irabazi zuen-eta. Hernaniarra da Eli baina, orain dela lau urte Hezkuntza Esparruan Energia Berriztagarrien Injenieritza ikasketak hasi zituenetik, Eibarren bizi da ikaskide batzuekin konpartitzen duen pisuan. Azaroaren 27an Portalean izango den Bertso Jaialdian banatuko dira ...eta kitto! Euskara Elkarrekin antolatutako bertso paper lehiaketaren 22. edizioaren sariak.



**- Aurten ere irabazle. Espero zenuen errepikatzea?**

Ez nuen espero. Bertso paperak ez ditut sarritan egiten, eta idazten ditudanak ez ditut sariaren bila egiten. Injenieritzako kurtso hasiera -hainbeste lanik ez daukagunean- aprobetxatzen dut bertso batzuk idazteko. Eta kontuan hartuta Hernaniko bertso eskolako irakaslea ere banaizela, umeak bertsoak egitera bultzatzeko, amua jartzeko-edo, guk irakasleok ere egiten ditugu, euren erreferente izategatik batipat. Gainera, bertso paperak bapatean jarduteko eta txukuntasuna lortzeko ere baliogarriak dira. Horregatik egin nuen, baina egia da ilusioa egiten duela sariren bat lortzeak. Gustatzen zait bapatean aritzea (jaialdiak, afariak, txapelketak...), eta batez ere afari girokoetan. Nahiko lehiakorra naiz, baina beste giro bat egoten da ezer jokoan ez dagoenean, ni ere sueltoago sentitzen naiz. Adrenalina puntu izugarria da bapatean aritzea.

**- Zenbat denbora daramazu bertsoetan?**

Bertso eskolan 8-9 urtekin hasi nintzen Hernanin. Kuadrilan apuntatu orde, norbera bere kasa apuntatu ginen, eta gero bertso eskolan

kuadrilatxo bat egin genuen, eta horrek lagundu egin digu gerora ere ohiko kuadrilatxik aparte erabat bertsozalea den beste kuadrila izaten. Horrek laguntzen du jarraitzen batez ere. Egia esan 12 urterekin zaila da bertso eskolara joatea, eta ez futbol entrenamenduetara edo dantzara, edo beste ezertara. Horregatik zure interesa berdintsuak dituen ingurune bat baldin badaukazu errezago egiten da. Dena dela uste dut aste osoan zehar badagoela denbora ariketa fisikoa egiteko eta baita ariketa mentala lantzeko ere. Guk Hernanin ostiraletan ematen ditugu bertso eskolak. Eibarko bertso eskolarekoekin ere badakukat harremana.

**- Nolako gaia aukeratu duzu?**

Erle baten ikuspuntutik erleen bitzita azaltzen dut. Umeekin bertso sortak nola egin aztertzen genbiltzan eta hori bururatu zitzaidan. Bestalde, familian badituzte erlezaleak eta, beraz, baneukan gai honi buruzko informazioa. Ikuspuntu berezi bat izan zitekeela iruditu zaitzaidan erle baten bizitzatik idaztea. Buruan agian beste gauza bat neukan, baina nahiko konforme gelditu nintzen egindako lanarekin.



## GAIZKA VITORIA ARANO

2016KO AZAROAREN 13AN HIL ZEN

*Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, baita hileta elizkizunetara agertu izana ere.*



# Gaur banatuko dira Eibarko BELDUR BARIK SARIAK

**G**aur 18:30ean Portalean hasiko den Beldur Barik jaialdian, eibartarrek lehiaketara aurkeztu dituzten bideoen emanaldia eskainiko dute eta jarraian banatuko dituzte Eibar mailako sariak. Aurtengo Beldur Barik lehiaketan, 1. kategorian (12/17 urte), Eibarko bost lan daude lehian: "Egunero hasten delako" (Eneko Iriondo, Patxi Eiguren, Jone Larrauri, Paula Marcos eta Aizpea Goitandia), "Puede" (Naroa Garzo), "No es caos, es reflexión" (Lorea Jainaga Albizu), "Beldur Barik-Janzkera" (Julen Teran, Jokin Arrizabalaga, Martin Eiguren, Iker Pacios, Ander Egurrola eta Markel Artetxe) eta "Zegatik harritzen gara?" (Malen Illarremendi Beitia, Amaia Gorrotxategi Etxaniz, Ainhoa Arroitauregi Lekunberri eta Julen Vallejo). Eta 18/26 urte bitarteko katego-



rian, berriz, lan bakarra aurkeztu dute lehiaketara: "Batu+gaitezen" (Jone Amua-tegi, Beatriz, Edurne, Iratxe, Jone Bengoa, Maialen, Marta, Miren, Onintza, Nerea eta Uxue). Euskal Herri mailako sariak, bestalde, azaroaren 26an banatuko dituzte, aurrean Urdulizen ospatuko den jaialdian.

## Uni-n autoenplegua sustatzen

Debegesa Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Agentziatik Uni Eibar-Ermua BHI-n bisitan egon ziren, autoenplegurako sentsibilizazio saioa eskaintzen. Eibarko enprendizaje ikasgelan izandako jardunaldi horretan, kultura ekintzailea bultzatzeko oinarriak ezarri ziren eta, horrekin batera, ekintzaileek heziketa-eremuan betetzen duten tokiaren inguruan eztabaidatu zen. Jaione Leibar enpresa-proiektu berriei laguntza emateko Debegesako arduradunak koordi-

natu zituen jarduera eta tratatutako materiak, Administrazio eta Finantzietako Zikloaren Sailean berak izandako esperientzia partekatuz. Uni Eibar-Ermua BHIk enpresa berriak sortzeko Administrazio Kudeaketa Mintegian eraturako programaren bultzadarekin egin zen aipaturako ekitaldia. Urratsbat da Hezikuntza Saileko Lanbide-Heziketaren Sailburuordetzak bultzatutako programa, TKNIKA-k koordinatuta, LHko ikasleei enpresak sortzen laguntzeko.



## WhatsART proiektukoak bisitan

Aurreko asteko eguenean Donostia 2016ko ekimenen barruan garatu den WhatsART proiektukoak Indianokua gaztelekuan egon ziren horren inguruko azalpenak ematen: "Aurreko ikasturtean Gipuzkoako hainbat gazterekin burututako proiektua aurkeztu ziguten eta gure herriko gazteak parte hartzera animatzen ahalegindu ziren". Gizartean dauden arazo, bidegabeberriak, hutsuneak... artearen bitartez adierazteko aukera ematen du WhatsART proiektuak.


## Adolfo Suarez Conde "Pipo"

(AZAROAREN 13AN HIL ZEN, 58 URTEREKIN)



*"ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN"*

JATAko lagunak



Senegal, Nepal, Euskal Herrixa, Maroko... gitxitan izaten da danak mahai baten bueltan jarritta, alkarrekin bazkaltzen ikusteko aukeria. Baiña aurreko asteburuan, domekan, irudi hori errealidade billakatu zan gure herriko mahai batzuetan behintzat. Euskal Herriko beste herri askotan bezala Eibarren be SOS Arrazakeriak egindako gonbidapenari baietz esan eta Bizilagunak ekimenari lotutako bazkarixak egittera animau ziran lagun batzuk. Zihetzago esateko, hiru bazkari egin ziran eta danera 35 parte hartzaille izan zittuan ekimenak. Danak pozarren dagoz ekimenari esker bizi izan daberen esperientziarekin eta, hori ikusitta, datorren urtian be holako bazkari gehixago antolatuko dirala pentsatzen dabe ekimenaren arduradunak.

**M**ugak alkartiak eta Gipuzkoako SOS Arrazakeriak antolatzen daberen Bizilagunak ekimenaren ardatza aurten azaruaren 13an egin diran bazkarixak osatzen dabe. Aurreko urtietan be holako bazkarixak egin izan dittue: 2012. urte-tik dihardue holako jarduera egitten Getxo, Ermua, Bilbo, Gasteiz, Basauri, Donostia, Hernani, Astigarraga, Errenteria, Irun, Tolosa, Anoeta, Zarautz, Aretxabaleta, Gasteiz eta beste herri batzuetan. Bizilagunak ekimenak millatik gora lagun batu zittuan iaz, 280 famelixak 140 bazkarittan. Eibarren, baiña, ekimenak ez dau oin arte oihartzun haundirik euki. Baiña oinguan beste batzuetan baiña babes haundixagua topau dau gurian: izan be, udaleko Gizartekintza saillak, Inmigratiño atalaren bittartez, eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Ongi Etorri Berbe-



# Mundu oso bat mahaixaren bueltan

tan-era egitasmuarekin bazkarixak antolatzeko ahalegin berezixa egin dabe.

Bizilagunak bazkarixa zala eta, domeka eguardixan parte hartzaille guztiak Untzagan alkartu ziran, "kintuak" eta beste batzuk egitten daberen moduan, eurak be talde argazkixak egitteko. Oinguan, baiña, batutakuak ez ziran lehenagotik ezagutzen ziran aspaldiko lagunak, gehixenak domeka aurretik ez eben eta alkar ezagutzen. Horregaittik, beste ezer baiño lehen, bitartekari izateko izena emondakuak aurkezpenak egin zittuen eta, pixkatian berba egin eta gero, famelixak hiru taldetan banatu eta bakotxa bere bazkarixa egingo zan etxera jua zan.

Bitartekarixetako bat izan zan Miren Baranguanek kontau deskunez, "gure gonbidatzaille edo anfitrioiak senegaldarrak izan ziran eta gonbidatuak, barriz, eibartarrak. Bi-

garren etxe batian be gonbidatzailliak senegaldarrak izan ziran, gonbidatuak eibartarrak eta bitartekarixa, barriz, urte morduan Eibarren bizi dan eta jatorri marokiarrak dakan Rahma izan zan. Eta hirugarren bazkarixaren bueltan nepaldarrak, senegaldarrak eta eibartarrak alkartu ziran".

## Hurrenguren zain

Hiru kasuetan, bazkarixaren aitzakixarekin jatorri ezberdiñeko lagunak alkar ezagutzeko aukeria euki eben: "Janarixaren inguruan berbetan hasi eta, hortik aurrera, bestelako galderak egin eta gauzak kontatzen juateko tartia euki genduan". Mirenen taldian Senegalen tipikua dan zeozer jan eben: "Rokhayak eta bere alabiak beste hiru lagun gonbidatu zittuen gurekin batera bazkaltzeko eta 'Thiebou yapp ak guinar' izenekua preparau zesken. Guretako lehen eta bigarren platerak diranak, bixak batian egin zittuen: arroza, kipula saltsa, oillaskua, bildotsa, berdurak, ensaladia... benetan oso goxua eguan. Senegalen tipikua izanda be, ez dabe egunero horrelakorik jaten, bakarrik egun berezixetan. Preparatzeko ixa bost ordu emon zittuela esan zesken. Eta horren ostian guk eruandako postria, bizkotxua jan genduan".

Diñuenez, "dana oso natural jua zan, janarixaren bittartez bakotxaren gauzak kontatzen hasi giñan eta pixka bat denetarik egin genduan berba: jaixak, ohitturak...".



*Nepal, Senegal eta Euskal Herrixa, hirurak bat izan ziran aurreko domekan, Bizilagunak ekimeneko bazkarixan.*

Ondo eta gustora egon ziran seiñale, ur-tarrillian atzera be euren kontura beste bazkari bat egitteko geratuta dagoz.

Ekimenak, antolatzaillae eta parte hartzaillendako ez eze, kanpokuendako be arrakastatsua izatia lortu dau. Oin dala gixi jakin dabenez, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordiak Bizilagunak ekimena finalista aukeratu dau abenduaren 15ian banatuko dittuen 2016 Gizarte Zibilla Sarixetarako.



Senegaldar eta eibartarren artian bittartekari izan zan Rahma jaiotzaz marokierra da.



Erretratuan ikusten dozuen taldea horren gustora egon zan, urtarrillerako euren kontura beste bazkari bat egitteko geratu dirala.

### Lujuzko postria 26xan Donostian

Euskal Herrixan bizi diran jatorri atzerri-tarreko lagunenguruko aurreiritzietari mugak jartzeko eta bizikidetzan normaldu baten alde ekiteko asmuarekin, Gipuzkoa Solidarioa ekimena sortu eben 2010. ur-tian: "Gizarteko eta instituziñuetako per-sonaje ezagunak erakarri nahi genduzen aurreiritzi eta estereotipuak gixitzeko eta asmo horrekin hasi giñan urtero ekitaldi bat antolatzen, Gipuzkoara etorri diranak euskal gizartiaren eraikuntzari egindako ekarpena aitortzeko. Aitortza honi babesa emoten detsenen artian Eusko Jaurlaritza, Batzar Nagusixak, Foru Aldundiak, udalak eta beste hainbat dagoz eta parte hartu dabenen artian Bernardo Atxaga, Teresa

del Valle, Nestor Basterretxea, Maialen Lujanbio, Andoni Luis Aduriz, Maria Silvestre, Pedro Miguel Etxenike, Cristina Uriarte, Xabier Azkargorta, Lourdes Oñederra, Paco Etxeberria, Maribel Salas, Santi Ugalde, Santi Eraso, Jose Ramon Sorroiz, Jesus Mari Zamora... Lehen hiru ur-tietan ekitaldixa Kursaaalen egin genduan eta ondoren Victoria Eugeniaren. 2012. ur-tian Gipuzkoa Solidarioa "Bizilagunak: Al-dameneko familia" ekimeneko bazkarixen amaierako postre bihurtu zan. Bizilagunak bazkarixetako protagonistak aitortza publi-kua jasotzen dabe eta atzera be juntatze-ko aukeria dake. Azaroaren 26xan, 17:00etan Victoria Eugeniara gonbidatuta zagozie".

**Bada beste modu bat MERKEAGOA**

**eI Velocimetro.com**  
 autoeskola

**Maisu e-Learning**  
 A, B, C, E, CAP, ADR

**GIDARI ESKOLA BERRIA**

**2 KOBRANTZA BAKARRIK**

**1) – Izen-ematea: 100 € + BEZ**  
 Teoria ikastaroa, e. learning materiala eta eskukoak, azterketarako tramitazioa, kudeaketa eta aurkezpena (ez dugu matrikulazioa kobratzen)

**2) – Praktiak: 25 € + BEZ**  
 ZER GEHIAGO ORDAINTZEN DA?  
 Trafikoak 90,30 € kobratzen du bi deialdietarako azterketa-tasengatik

*Non dago abantaila?*  
**Pack osoa: izen-ematea + e. learning ikastaroa + 5 praktika + BEZ = 216 €**

*Zer gehiago aurreztu dezakezu?*  
 Bitan baino gehiagotan huts eginez gero, **tramitazioa 30 € izango da bakarrik**

**Gestoria Alonso**

618 25 93 44  
 943 20 20 17

San Agustin, 5 - behea  
 mcalonsoeibar@gestores.net

**GA**

**Gestoria Alonso**

TRAMITES  
 Transferencias  
 Matriculaciones  
 Bajas  
 Vehiculos importación  
 Tarjetas de transportes  
 Gestiones DGT

IZAPIDEAK  
 Transferentziak  
 Matrikulazioak  
 Bajak  
 Auto importazioak  
 Gaiturako tarjetak  
 TZO kudeaketa

943 20 20 17  
 618 25 93 44  
 mcalonsoeibar@gestores.net

# Liburuak



eva alberdi  
—UDAL LIBURUTEGIA—

## Nola kendu ume bati irakurtzeko gogoa di-da batean

Egun hauetan bibliotekaria den **Edgar-do Civalloren** idatzi bat iritsi da nire eskuetara. Bertan zortzi pauso aipatzen ditu ume batek irakurketa gorrotatzeko:

1. Gorde itzazu liburuak bere eskuetatik urrin. Asko ukitu ezkererako suntsitu egingo ditu, batez ere liburuak fin horiek edota irudi-album eder horiek.
2. Ez iezaiozu irakurri liburu bat baino gehiago astean. Bestela, irakurketaren menpeko bihur daiteke. Gainera, irudimena elikatze badiu telebista, bideo-jokoak edo mugagabea den unibertso digital hori.
3. Ez irakurri inoiz ere ume baten aurrean. Bestela, eredutzat hartuko zaitu, eta imitatze gogoa sortuko zaio. Izan ere, bakarrik ikasteko beharrezkoa den hori plazerra dela pentsatu dezake.

4. Debekatu itzazu irakurketa txar guztiak. Ez izan beldurrik ezta errukirik ere ume-ari interesa pizten dioten istoriotxoak, aldizkariak edo umore kutsua duen edozein liburu kanporatzeko: liburu onei garrantzia kenduko liekete.



5. Egin umeari galderak sarri, irakurri duen guztia zuzen ulertu eta buruz ikasi duen egiaztatzeke.
6. Umeak irakurtzen ikasten duen unetik bertatik utzi istorioak kontatzeari: bere kabuz irakur ditzake eta.
7. Behartu egunean gutxienez hamar orrialde irakurtzera, eta bakarrik zuk aukeratutako liburuenak: ondo idatzitako liburuak, eduki serioak dituztenak eta balore onak erakusten dituztenak.
8. Eta azkenik, derrigortu hasten dituen liburuak amaitzera... jateko guztia amaitu behar duen arrazo berberetatik: liburuak ez dituzten ume pobreak daudelako!  
Aita, ama, irakasle: hausnarketa serioa egin honi buruz eta ikusiko duzu nola lortzen duzun zure helburua.

Erreferentzia: "Bibliotecario. Un blog de Edgardo Civallo" <http://biblioteca-archivo.blogspot.com.es/2015/04/gotas-de-animacion-la-lectura-04-06.html>



## Musika

iñaki  
zubillaga

### Ramoncín 6.1

**Bai lagunak, bai... datorren zapatuan kontzertura joango naiz,** Astelena frontoian, gaueko 11etan. Aukera paregabea izango da betiko rock'n rolla entzuteko. Aspaldiko abestiak, hitz harrotuak, keinu makarrak, gitarra zorrotzak,... mereziko du, bai.


Jose Ramon Marquez Martinez dator Eibarrera, Ramoncín madrildarra. 1978an atera zuen lehenengo diskoa WC taldearekin. Punk irudia, zirikatzailea,...

80. hamarkadan erreferentzia izan zen Madrilgo 'movidan' eta rock munduan. Bederatzi disko atera zituen eta Espainia osoan ibili zen kontzertuetan. Musika azpiegitura eskasak ziren orduan, eta berak eta bere garaikoek zabaltu zituzten bideak gaur egungo egoera ezagutzeko.

90. hamarkadan, telebista pribatuekin, Ramoncín itxuraldatu zen, polemista moduan: "Crónicas marcianas", "Moros y cristianos" programetan. Beti egileen defentsan, 'pirateria'-ren kontra... Beti argi eta garbi bere iritzia ematen.

Gero SGAEko gestioan sartu zen, Teddy Bautistaren ordean, eta hortik etorri ziren arazo judizialak. Arazo horiekin amaituta, eta abertzalea jasota, berriro martxan dago bere azken diskoa aurkezten tauletan. Orain Los Eléctricos del Diablo da bere taldea: Castelló anaiak gitarra eta bateria, Charley Gonzalo bibolinarekin, Miguel Jimenez baxuarekin, Jesus Varas teklatuetan eta Manuel Silva gitarrajolea.

Sorpresa, benetan. Apustu arriskutsua antolatzailearentzat, baina benetako rock



apustua. Polemikaz aparte, datorren zapatuan, argiak itzalita, azalduko da Ramoncín artista, rockeroa.

"Cuando el diablo canta" diskoa aurkeztuko du. Baina, nola ez, betiko kantak ere entzungo ditugu: "Hormigón, mujeres y alcohol", "Reina de la noche", "La chica de la puerta 16", etabar. Badator ba, benetako 'cheli', harroputza, arrastaka abesten duena...



## Ugarteburuk ezin izan zuen aurtengo bolari onenarekin

Asola Berriko Bittor Ugarteburu Euskadiko azpitxapelkun geratu zen aurreko zapatuan Elgetako bolatokia jokatuak Euskadiko 27. Hiru-Txirlo txapelketaren azken jardunaldian. Eibartarrari aurrea hartu zion aurtan hiru txapelak (Gipuzkoakoa, Lehendakari eta Euskadikoa) jantzi eta nagusitasuna erakutsi duen San Miguelko Jabier Osorok. Elgoibarkoak Ugarteburuk baino bi txirlo gehiago bota ditu txapelketan eta bos-

tera geratu dira Asola Berriko Pedro Gomez eta Iruzubietako Patxi Olabarria eta Antonio Ibarluzea.

Sailkapen absolututik kanpo, Eibarko ordezkarietako dagokienez, Ugarteburu onena izan zen nagusietan, bikoteka bera eta Bittor Astigarraga bigarren geratu ziren eta postu berean sailkatu zen Asola Berri taldekako sailkapenean, emakumezkoetan Sonia Gomez hirugarrena izan zen bitartean.



Jabier Osoro (erdian) Asola Berriko Ugarteburu eta Gomezekin.

## Herriko waterpolo inoiz baino indartsuago

Aurtan sortutako nesken taldeak jokatuak partidu guztiak irabazteaz gain, mutilen lehen taldea ere inoiz baino hobeto dabil eta aurreko zapatuan laugarren garaipena jarraian lortu zuen Euskal Herriko 1. Mailan. Partidu horretan, gainera, ez zuten inolako eragozpenik izan garaipen erraza lortzeko (18-5). Urbat 3H-ko neskei oraingoan gehiago kostatu zitzaizkien irabaztea, baina azken laurdenean gehiago izan ziren eta 11-7 nagusitu. Leioako talde biei gailendu ondoren, asteburuan gizonetako Getxora joango dira eta emakumezkoak Irunera.



Igor Sanz, senior taldeko jokalaria.

## Herriko sei ordezkari asteburuko Euskadiko squash txapelketan

Gaur eta bihar Irunen eta Hondarribian jokatuak den squash-eko Euskadiko Txapelketan Eibarko Klub Deportiboko sei ordezkari izango dira parte hartzen: Alberto Ferreiro (2. ranking-ean), Sergio Salgado (4.), Josu Gallastegi (11.), Miguel Cabanillas (25.), Aitor Sanchez (34.) eta Oscar Ferreiro (64.). Izen-emateak itxita, 42 jokalaririk izango dira txapelketan bila: 36 gizonetako eta sei emakumezko. Zapatuko 18:00etan hasiko dira finalak, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko kontsolazioetakoekin.



**Helbidea**  
**EIBAR** URKIZU PASEALEKUA, 13  
 Orbeako dorreak / 1. solairua  
 ☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8) Pediatria	18) Foto-depilazio
9) Psikiatria	Unitatea
10) Neurologia	

**IKUSKIZUN AFARIA**

**PASTROTEKA Comedy Club ASTIBERENA**

**MONOLOGO** ekin  
**Zatoz ikustera!**

**EL MELI**  
 Azaroak 26 23:00etan

Ostiral, larunbat eta Igandeetako  
**MENUAK**  
 Okel parrillada  
 Arrain parrillada  
 Delicatessen pintxoak

**ESTELENA**  
 EIBARKO GASTROTEKA

Estaziño, 7  
 943 20 70 32

**AURREKO ASTEBURUKO emaitzak****FOBALLA**

**Emakumezkoen 2. Maila**  
Eibar 2 Berrioizar 2  
**3. Maila**  
CD Vitoria 2 Durango 1  
**Emakumezkoen Lurralde Maila**  
Eibar 2 Mutriku 4  
**Erregional Gorengoena Maila**  
Eibar Urko 1 Beasain 1  
**1. Erregionala**  
Soraluze 3 Urki 2  
Eibartarrak 3 Bergara 2  
**JUBENILAK**  
**Ohorezko Maila Nazionala**  
San Juan 3 Eibar 0  
**Ohorezko Maila**  
Ordizia 2 Eibar 0  
**1. Maila**  
Aloña Mendi 5 Urki A 1  
**KADETEAK**  
**Euskadiko Liga**  
Eibar 4 Amaikak Bat 1  
**Ohorezko Maila**  
Real Sociedad 2 Eibar 1  
Urki 1 Iintxa 1  
**1. Maila**  
Urki 3 Aretxabaleta 1  
Arrasate 4 Eibartarrak 1  
**Nesken Ohorezko Maila**  
Eibar 5 Goierrri Gorri 1

**FOBALL-ZALETUA**

**KirolBet Liga**  
Sporting 1 Bar EzDok 1  
Kontent 6 Slow XOK 1  
Esmorga 2 L.P. Machado Tankemans 1  
Bar Areto 1 Ipur Sagardotegia 3  
Durango 4 Alkideba 3  
Azkena Adahi 2 Bar Arkupe 0  
Bar Txoko 1 Garajes Garcia 3

**ARETO-FOBALLA**

**2. B Maila**  
Pinseque 4 Concepto Egile 1  
**KADETEAK**  
Debabarrena 9 Goierrri 1

**ESKUBALOIA**

**1. Nazional Maila**  
Somos Eibar 25 Romo 26  
**Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa**  
Avia Eibar 18 Urnieta 17  
**Gipuzkoako 1. Maila**  
Saieko 29 Haritza Eibar 22  
**JUBENILAK**  
**Euskadiko Txapelketa**  
Beristain Elgoibar 25 Tekniker Eibar 18  
**Gipuzkoako Txapelketa**  
Arrano 30 Eibar Eskubaloia 28  
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**  
Aloña Mendi 21 Avia Eibar Eskubaloia 24  
**KADETEAK**  
**Euskadiko Txapelketa**  
Urkunde Elgoibar 31 Tekniker Eibar 24  
**Gipuzkoako Txapelketa**  
Dominguez Pulpo 32 Eslaban Eibar 20  
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**  
Leizaran 5 Avia Eibar Eskubaloia 28

**ERRUGBIA**

**Ohorezko B Maila**  
Eibar Rugby 15 CRAT A Coruña 16  
**Emakumezkoen Euskal Liga**  
EzDok Eibar 31 Hernani 5  
**18 urtetik behera**  
Avia Eibar 0 Universitario Bilbao 46  
**16 urtetik behera**  
Avia Eibar 29 Universitario Bilbao 52

**SASKIBALOIA**

**Euskal Herriko 1. Maila**  
Mutriku 36 Katu Kale 64

**WATERPOLOA**

**Euskal Herriko 1. Maila**  
Urbat Urkotronik 18 Leioa 5  
**Euskal Herriko 2. Maila**  
Urbat Urkotronik 8 Santoña 11  
**Nesken Euskal Herriko 1. Maila**  
Urbat 3H 11 Leioa 7

**HIRU TXIRLO**

**Euskal Herriko Txapelketa**  
1) Jabier Osoro (San Miguel), 18  
2) Bittor Ugarteburu (Asola Berri), 16  
3) Pedro Gomez (Asola Berri), 13  
4) Patxi Olabarria (Iruzubieta), 13  
5) Antonio Ibarluzea (Iruzubieta), 13

**Asteburuko kirol agenda****KIROL AGENDA ETA EMAITZAK**  
**www.etakitto.eus-en**

Kirolzaleendako zerbitzu berezia eskaintzen dihardugu denboraldi honetan, gure web orrian kontsultatu dezakezue. Horrela, barixaku goizerako asteburu horretan izango diren neurketak eta horien ordutegiak jasotzen dituen KIROL AGENDA duzue eskura, eta baita **astelehenero lehen orduan** asteburuan izandako emaitzen berri jasotzen dituen ASTEBURUKO EMAITZAK ere. Informazioari dagokionez, helduen partiduetatik hasi eta gazteen mailetakotaraino jasotzen ditugu, jubenilak, kadeteak, infantilak eta alebinak tartean.

Azken asteburuko emaitzei erreposoa eginez, **saskibaloian** indartsu jarraitzen du Katu Kalek liga hasieran, Kopa bereganatu eta gero. Zer esanik ez Urbat **waterpolo** maila guztietako taldeak, neskenak gainera porrotik zer den ez dakiela. **Errugbian** nesken taldeak denboraldi bikaina dihardu egiten, mutilena mailari eusteko borrokan larri dabilen bitartean. **Eskubaloian** denetarik izan zen azken asteburuan: Somosek eta Haritzak galdu egin zuten, baina Aviako neskek irabazi Euskadiko Txapelketan. **Foballean**, 1. Mailako Eibarrek atsedena izan zuen eta 2. Mailako emakumezkoen taldeak bina berdindu zuen Unben.

**Eibar FT-k Ohiko Batzarra egingo du hilaren 24an**

Inoizko aurrekonturik altuena aurkeztuko zaie akziodunei datorren egunean Eibar FT-k egingo duen Batzar Orokorrean. Coliseoak bigarrenaz hartuko duen batzarra 19:30ean hasiko da eta Zuzendaritzak 43.621.000 euroko aurrekontua aurkeztuko du, batez ere telebista eskubideetatik (39 milioi eurotik gora, iaz baino 12 milioi gehiago) jasotakoaren eraginez. Azken urtean, gainera, klubak sei milioi euroko superabita izan du eta guzti horrek ahalbidetu du Eibarrek lau aldiz biderkatzea orain dela bi urte, 1. Mailan debutatu zuenean, gastatzeko zuen diru kopurua. Horrela, plantilla osatzeko orduan 5 milioi gastatu baziren, iaz 13 milioi erabili ziren eta aurten 21etik gora gastatu dira. Aurrekoari gehitu behar zaio aurten egindako fitxaketetan erabilitako milioi eta erdia. 1. Mailan debutatzekoan Eibarrek 11 milioi euroko kontuak aurkeztu zituen; oraingoan lau aldiz gehiago eta, horrez gain, 15 milioiko superabita aurreikusten da. Batzarra zuzenean jarraitu ahal izango da streaming bidez klubaren web orritik eta sare sozialetatik. Jakiteko dago Administrazio Kontseiluak maiatzean egingo beharreko hauteskundearen eguna zehaztuko duen.

**Asteburuko kirol emaitzak****ASTEBURURAKO kirol agenda****FOBALLA**

**1. Maila**  
Eibar - Celta (zapatua, 18:30)  
**Emakumezkoen 2. Maila**  
Mulier - Eibar (domeka, 16:00)  
**3. Maila**  
Balmaseda - CD Vitoria (zapatua, 17:30)  
**Emakumezkoen Lurralde Maila**  
Eibar - Mutriku (domeka, 18:00)  
**Erregional Gorengoena Maila**  
Iintxa - Eibar Urko (zapatua, 16:00)  
**1. Erregionala**  
Urki - Antzuola (zapatua, 15:30)  
Soraluze - Eibartarrak (zapatua, 16:30)  
**JUBENILAK**  
**Ohorezko Maila Nazionala**  
Eibar - Antiguoko (domeka, 16:00)  
**Ohorezko Maila**  
Eibar - Aretxabaleta (domeka, 13:30)  
**1. Maila**  
Urki B - Burumendi (zapatua, 17:45)  
Antzuola - Urki A (zapatua, 15:30)  
**KADETEAK**  
**Euskadiko Liga**  
Antiguoko - Eibar (zapatua, 15:30)  
**Ohorezko Maila**  
Eibar - Urki (zapatua, 13:30)  
**1. Maila**  
Antzuola - Urki (zapatua, 09:30)  
Eibartarrak - Burumendi (domeka, 10:30)  
**Nesken Ohorezko Maila**  
Zumaia - Eibar (domeka, 12:00)  
**INFANTILAK**  
**Ohorezko Maila**  
Eibar - Urola (zapatua, 11:00)  
**1. Maila**  
Urki - Eibartarrak A (zapatua, 15:00)  
Eibartarrak B - Amaikak Bat (dom., 16:30)  
**Infantil Txikiak**  
Martutene - Eibar (domeka, 11:00)  
Urki - Aloña Mendi (domeka, 14:30)  
**Nesken 8ko Maila**  
Bergara B - Urki A (zapatua, 10:00)  
Anaitasuna - Urki B (zapatua, 09:15)

**FOBALL-ZALETUA**

**KirolBet Liga**  
Bar EzDok - Bar Arkupe (zapatua, 09:00)  
Alkideba - Slow XOK (zapatua, 09:00)  
Kontent - Garajes Garcia (zapatua, 10:30)  
Azkena Adahi - Bar Areto (zapatua, 12:00)  
Ipur Sagard. - Esmorga (domeka, 09:00)  
Durango - Sporting (domeka, 10:30)  
Txoko - L.P. Tankemans (domeka, 12:00)

**ARETO-FOBALLA**

**2. B Maila**  
Conc. Egile - Tafatrans (domeka, 12:30)

**ESKUBALOIA**

**1. Nazional Maila**  
Beti Onak - Somos Eibar (zapatua, 18:00)  
**Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa**  
Egibide - Avia Eibar (zapatua, 17:45)  
**Gipuzkoako 1. Maila**  
Urnieta - Haritza Eibar (domeka, 12:00)  
**JUBENILAK**  
**Euskadiko Txapelketa**  
Tekniker Eibar - Zarautz (zapatua, 16:00)  
**Gipuzkoako Txapelketa**  
Eibar Eskub. - Ordizia (zapatua, 17:30)  
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**  
Avia Eibar - Bidasoa (zapatua, 19:00)  
**KADETEAK**  
**Euskadiko Txapelketa**  
Tekniker Eibar - Zarautz (zapatua, 17:30)  
**Gipuzkoako Txapelketa**  
Eslaban Eibar - Leizaran (zapatua, 11:30)  
**Nesken Gipuzkoako Txapelketa**  
Avia Eibar - Cometel Elg. (domeka, 12:00)

**ERRUGBIA**

**18 urtetik behera**  
Atco. SS - Eibar Rugby  
**16 urtetik behera**  
Atco. SS - Eibar Rugby

**SASKIBALOIA**

**3. Maila**  
Katu Kale - Cafes Aitona (zapatua, 18:15)

**WATERPOLOA**

**Euskal Herriko 1. Maila**  
Getxo - Urbat Urkotronik (zapatua, 20:00)  
**Euskal Herriko 2. Maila**  
Fortuna - Urbat Urk. (zapatua, 18:45)  
**Nesken Euskal Herriko 1. Maila**  
Bidasoa - Urbat 3H (zapatua, 21:30)  
**INFANTILAK**  
**Euskal Herriko Liga**  
Bidasoa - Urbat Urk. (zapatua, 20:00)

# 135 eibartarrek amaitu zuten Behobia-Donostiaren 52. edizioa

laz baino 15 eibartar gehiagok amaitu zuten domekan Donostian jokaturako maratoni erdia; eta baita orain dela urtebete baino denbora hobeto egin ere. Eguraldia ere, iazko beroaldia ahaztuta, oraingoan aproposagoa izan zen antxixiketan egiteko. Helmugara iritsitako 135 eibartarrek, 34 emakumezkoak izan ziren, hau da, iaz baino 11 gehiago. Aurten ere Pello Osoro izan da eibartar onena gizonetzkoetan (26.a sailkapen absolutuan, iaz baino postu bat aurretik eta bi minututan hobetuz orduko marka) eta gau-

za bera Aitziber Urkiolaren kasuan emakumezkoetan (honek hiru minutu gutxiago behar izan ditu aurten). Probaren irabazlea ere iazko bera izan da, Carles Castillejo kataluniarra (1:00:19) eta emakumezkoetan Lanzaroteko Aroa Merinok (1:10:53) ezustekoa eman zuten proban nagusituz. 31.276 ziren lasterketan parte hartzeko ize-na emanda zeukatenak eta 30.000 inguru izan dira berau amaitzeko gai izan direnak. **Hona hemen jarraian eibartarren sailkapena eta proban egindako denbora:**

26	Pello Osoro	1:07:02	6.817	Ane Ziaran	1:36:37	12.357	Ibon Martin	1:45:14	17.845	Josu Zinkunegi	1:54:50
137	Kepa Varela	1:12:35	6.828	Ibon Arizaga	1:36:38	12.900	Libe Gorosabel	1:46:11	17.970	Aitor Aranzeta	1:55:07
521	Igor Atxa	1:18:04	6.981	Daniel Iglesias	1:36:54	12.909	Jon Gorosabel	1:46:11	17.971	Ander Beobide	1:55:07
722	Jon Zubia	1:19:26	7.363	Eneko Urain	1:37:32	12.916	Manuel Villa	1:46:12	17.989	Ainhoa Argoitia	1:55:09
737	Pello Berrizbeitia	1:19:29	7.517	Kristina Lopez	1:37:45	12.917	Ander Larrañaga	1:46:12	18.026	Larraitz Carracedo	1:55:14
1.043	Jon Ilaramendi	1:21:32	7.756	Ander Gutierrez	1:38:56	12.931	Jaime Mendiguren	1:46:13	18.027	Igor Olañeta	1:55:15
1.056	Liher Prieto	1:21:37	7.998	Jokin Martinez	1:38:27	13.211	Iosu Lanas	1:46:41	18.237	Susana Agirregomezkorta	1:55:37
1.073	Ion Cid	1:21:43	8.297	Ibon Ramirez	1:38:52	13.402	Humberto Sarasua	1:47:00	18.243	Susana Etxeberria	1:55:37
1.333	Eduardo Uribe	1:23:12	8.394	Andoni Izagirre	1:38:59	13.438	Iker Amas	1:47:03	18.412	Ainhoa Ugarte	1:55:59
1.362	Aitor Oiarzabal	1:23:20	8.631	Idoia Izagirre	1:39:21	13.467	Elena Nazaret	1:47:06	18.413	Maider Otaola	1:55:59
1.466	Aimar Arakistain	1:23:48	8.991	Javier Varona	1:39:50	13.507	Miguel Bilbao	1:47:10	18.773	Adrian Laspiur	1:56:50
1.550	Aitziber Urkiola	1:24:07	9.064	Ariane Zubia	1:39:56	13.531	Oier Cobo	1:47:12	19.309	Isabel Prieto	1:58:07
1.707	Alex Gonzalez	1:24:38	9.170	Ina Telleria	1:40:07	13.765	Kepa Osoro	1:47:36	19.770	Josu Arakistain	1:59:05
1.922	Asier Barberena	1:25:29	9.368	Iñaki Bastida	1:40:28	14.042	Ander Egurrola	1:48:05	19.783	Laura Conde	1:59:07
2.107	Jonatan Alustiza	1:26:10	9.449	Alexander Telleria	1:40:36	14.202	Ernesto Etxabe	1:48:22	19.942	Josu Hernandez	1:59:28
2.375	Fidel Gonzalez	1:27:06	9.512	Emilio Bastida	1:40:43	14.291	Raul Miguel	1:48:30	19.944	Nerea Telleria	1:59:28
2.671	Aitor Rodriguez	1:27:57	9.528	Asier Arana	1:40:44	14.327	Jon Mardaras	1:48:34	20.199	Cristina Bermudez	2:00:12
2.887	Aitor Bastida	1:28:30	9.566	Miguel Fernandez	1:40:48	14.478	Alberto Arakistain	1:48:52	20.887	Mikel Miguélana	2:02:27
3.009	Ivan Tueros	1:28:46	10.671	Iñigo Argoitia	1:42:37	14.489	Igor Madariaga	1:48:53	20.904	Carlos Balseiro	2:02:30
3.076	Miren Gallastegi	1:28:56	10.934	Bittor Ugarteburu	1:42:58	14.619	Madalen Zubizarreta	1:49:06	21.164	Aintzane Aristi	2:03:23
3.289	Eneko Azurmendi	1:29:24	11.241	Oskar Alberdi	1:43:28	14.621	Marina Kruzelaegi	1:49:06	21.262	Nerea Ziaran	2:03:44
3.610	Josu Urbieto	1:30:03	11.269	Fernando Javier Perez	1:43:30	14.630	Eduardo Alvarez	1:49:07	21.266	Iker Lasuen	2:03:44
4.086	Asier Alberdi	1:31:13	11.425	Txomin Aizpurua	1:43:45	14.660	Jorge Novoa	1:49:09	21.301	Urko Larrañaga	2:03:51
4.222	Enrique Salgado	1:31:31	11.531	Roberto Gallego	1:43:55	14.670	Eduardo Kapelastegi	1:49:11	21.700	Juan Oiarzabal	2:05:30
4.282	Fernando Molpeceres	1:31:38	11.534	Paul Unamuno	1:43:55	15.010	Lourdes Iriarte	1:49:41	21.702	Ines Oiarzabal	2:05:30
4.292	Ion Zubiate	1:31:40	11.597	Ruben Gonzalez	1:44:01	15.089	Irene Orueta	1:49:50	21.840	Ane Ros	2:06:05
4.429	Juan Carlos Adot	1:31:59	11.614	Jone Saez	1:44:02	15.324	Oier Berrizbeitia	1:50:11	21.994	Juan Galarza	2:06:49
4.659	Josu Trueba	1:32:28	11.622	Izaskun Aizpiri	1:44:03	15.478	Lore Aizpiri	1:50:28	22.664	Jorge Perez	2:10:40
4.667	Gorka Gallastegi	1:32:29	11.624	Oscar Saez	1:44:03	15.579	Borja Guerrero	1:50:40	22.959	Victor Calderon	2:12:53
4.994	Unai Artetxe	1:33:11	11.626	Andoni Mayo	1:44:04	16.201	Agus Aizpiri	1:51:47	23.077	Yago Del Campo	2:14:22
5.735	Ander Iriondo	1:34:36	11.628	Amalia Abanzabalegi	1:44:04	16.922	Iñigo Guruzeta	1:53:01	23.205	Fernando Arregi	2:15:37
5.911	Iñigo Rodriguez	1:34:57	11.634	Arantza Bujedo	1:44:05	16.968	Kristina Zabala	1:53:06	23.667	Maria Amiano	2:22:49
6.554	Ander Zamakola	1:36:10	11.888	Luis De Blas	1:44:30	17.347	Asier Silva	1:53:50	23.668	Xarles Arrazola	2:22:49
6.643	Ibai Lazkano	1:36:18	12.052	Fermin Sebastian	1:44:46	17.597	Ander Aranberri	1:54:21			



## Infantil mailako gimnastak Valladoliden

Aurreko asteburuan Valladoliden jokaturako oinarri mailako taldeen arteko Espainiako Txapelketan, Ipuruatik joandako infantil mailako talde biak 17. eta 18. postuetan sailkatu ziren guztira parte hartu zuten 98 taldeen artean. Orain arte jokaturako txapelketetan maila handiagoa erakutsi bazuten ere, Ipurua Gimnasia Erritmikako teknikoez gimnasten lana azpimarratu zuten eta baita Alaitz Aranbarrik maila indibidualean eskuratutako 11. postua ere (62 gimnasten artean). Abenduaren lehen astean seniorren ordua izango da Murtzian.

## JOSETXO ARANA

"Beti izango zara gure izarra"

Zure emaztea Marimar, eta zure seme  
Iker eta Arkaitzen partetik

**ESKERRIK ASKO, TXAPELDUN**





## OIER ARAOLAZA (antropologoa)

*- Nondik nora jardungo duzu berbetan datorren asteko hitzaldian?*

Izenburuan agertzen diren jaien inguruko gogoeta egiten ahaleginduko naiz, horien inguruan pentsatzen geratzeko planteamendu modukoa aurkeztuta. Nik neguko festak deitzen ditudan horiek, hau da, neguan zehar egiten diren jaiak bilakaera bat izaten ari dira eta, horrekin batera, horien inguruko zalantzak, kezak sortzen doaz. Hitzaldian zer dagoen ikusarazi nahi dut, horrelakoak antolatzeko orduan kontzientzia batetik abiatzeko. Horien inguruan guk badaukagu zer esan, ez da modu batean hor dagoen eta horrela hartu behar dugun zer-bait. Horrelakoak azalduko ditut, besteak beste.

*- Gazteria sailak antolatu du. Horrela-*

# “Merkatariek zeresan handia daukate Halloween, Olentzero eta halako jaien inguruan”

Datorren asteko eguaztenean, 19:00etan, "Halloween, Olentzero, Karnalak... noruntz doaz gure neguko festak?" izenburuko hitzaldia emango du Oier Araolazak Portalean, Gazteria sailaren eskutik.

Antropologo eta dantzari eibartarra horrelako jaien tradizioaren inguruan informazio ugari biltzen ibili da eta hitzaldiarekin gogoetarako tartea zabaldu nahi duela esan digu.

*koen inguruan gazteek nahasmen handiagoa dutela uste duzu?*

Ez dut uste horrelako kontuen inguruan gazteek nagusiek baino nahasmen handiagoa dutenik. Beste barik, Gazteria sailak Gabonei eta horrelako ospakizunei buruzko beste saio batzuk ere antolatu ditu, besteak beste jai horietan batez ere gazteek parte hartzen dutelako. Nahasmenaren arazoa, baina, hori baino sakonagoa da. Nik ikusten dudan moduan, adibidez, merkatariek gai honetan zeresan handia daukate. Azken batean, irudi batzuk modu sistematikoan erabiltzen dituzte, horrekin paisaje bat sortzen da, festa jantzi egiten dute eta horrek guztiak gure imajinarioan eragina dauka.

*- Horrelakoetatik alenduta jai horiek*

*ospatzeko ahalegin batzuk ikusi ditugu. Aurten ere ume batzuk baserriko baserri koko-jantzita ibili dira Animen gaua ospatzen...*

Merkataritzaren industriak egiten dituen kanpainen kolonialismoaren aurrean ahalegin xumeak dira horiek. Ez dakit posible den komunikabideen babesarekin horrelako kanpainen duten indarrari aurre egitea. Hori baino gehiago, gure "disidentzia" bistartzeko balio dutela esango nuke. Edozein modutan ere, harrigarria egiten zait ikustea gai batzuekin atzazkalak nola ateratzen ditugun eta beste batzuen aurrean, berriz, ez dugun ezer egiten: Halloweenen kontra joateko arazorik ez dago, adibidez, baina Olentzero ia desagertuta dago eta horren inguruan ez da horrelako kezkarik ikusten.

## BERTSO PAPER lehiaketako irabazleak

...eta kitto! Euskara Elkarteko bertso taldeak astelehenean eman zuen ezagutzera aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako ebazpena. 16 urtetik gorakoen artean irabazlea Eli Pagola izan da. Hernaniarra da, baina Eibarren dihardu ikasten, eta iaz ere berak jantzi zuen txapela. Bigarren saria Oretetako Julian Albisturren bertsoak bereganatu du. 16 urtetik beherakoen artean, Peru Alberdik eraman du txapela, eta bigarren saria, berriz, Eneko Osorontzat izan da. Irabazleek azaroaren 27an, domeka, egingo den San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak. Jaialdian Andoni Egaña, Amaia Agirre, Unai Mendizabal eta Uxue Alberdi bertsolariek jardungo dute Jon Mikel Mujikaren esanetara. Sarrerak salgai daude 6 eurotan Sagar Bitza, Depor eta Kultur tabernetan.

**BERTSO SAN ANDRES JAIALDIA**  
**azaroak 27 domeka PORTALEAN 18-30**

anahon egaña  
 uxue alberdi  
 amaia agirre  
 unai mendizabal

**SARRERAK**  
 SAGAR-BITZA, KULTU eta DEPOR-en

**SALGAI**

XXII. San Andres Bertso Paper Lehiaketako Ebazpena

ANOLATZALEA: eta

BARTSLEAK



## Eskolarteko BAKILAO-TXAPELKETA

Domekan, 11:00etatik aurrera Eskolarteko Bakailao Txapelketa jokatu da Untzagan, Eibarko Bakillauaren Kofradixiak antolatuta. Asmoa gazteen artean zaletasuna piztea denez, oraingoan herriko ikasleek, 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutiek hartuko dute parte txapelketan, bakailaoa pil-pil erara prestatzen.

Bestalde, udalak San Andres jaien inguruan antolatzen duen XXIV. Bakailao Txapelketa azaroaren 27an izango da eta egun horretan ospatuko du Bakillauaren Kofradixiak XXIII. Batzar Nagusia. Batzarraren harira prestatu duten ekitaldian Carmen Agirre (Busca Isusi gastronomoaren alarguna), Jose Zugasti (eskultorea) eta Asier Serrano (idazlea) ohorezko kofrade izendatuko dituzte.



## Gaztaiñerre primerako giroan

Astelehen iluntzean ondra-jana eta kalejira eginda ospatu zuten Gaztaiñerre AEK Euskaltegikoek eta eurekin bat egitera animatu ziren guztiak. Aurten talde polita batu da eta, soinu-joleak eta Eibarko Kantuzaleak abesbatzak lagunduta, Paloma tabernatik kalejira joan ziren Urkiraino, han kantuan egin eta jaiarekin jarraitzeko.

## "Tipi-tapa, Korrika"-rekin gozaten

Pirritx, Porrotx eta Marimotots "Tipi-tapa, Korrika" ailegatu zitzaizkigun aurreko asteburuan, ikuskizun berriaren estreinaldia egitera. ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik lau saio eskaini zituzten Hezkuntza Esparruan eta, betiko moduan, joan ziren guztiak ondo baino hobeto pasatu zuten pailazoekin batera abesten eta dantzatzen.



## "Linbotarrak" aztertzen

Harixa Emoten, euskarazko irakurle taldeak martitzenean egin zuen saioan Asier Serrano eibartarraren "Linbotarrak" aztertu zuten egilearekin batera eta Antxon Narbaizaren laguntzarekin. Abenduaren 13an izango da hurrengo saioa eta, egun horretan, Joxemari Iturraldearen "Perlak, kolpeak, musuak, traizioak" lanaren inguruan jardungo dute berbetan.



## Imanol Larrabeitiren margoak

Bihar 12:00etan inauguratuko dute Imanol Larrabeitiren margo erakusketa, Untzagako jubilatutako etxean. Eibar foball taldeko jokalaria izandakoaren lanak abenduaren 4ra arte egongo dira ikusgai, astelehenetik barixakura 19:15etik 21:15era (eguztaztenetan itxita) eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

## Marie Curie-ri buruzko saioa

Pagatxa emakume elkarteak antolatutako "Emakumeen Historia" tailerreko hurrengo saioa datorren astean, martitzenean izango da, 18:30etik 20:00etara Portalean (ikastaro gelan). Leticia Martinez-Alcocerrek gidatutako saioan 1931. urtean Kimikako Nobel Saria jaso zuen Marie Curie izango da protagonista eta ekintza irekia izango da. Bestalde, irakurketa eta idazketa tailerretan interesa izanez gero, 687368907 telefonora deitu.



## Akara tabernan bertsoan

Ederto pasatu zuten aurreko asteburuan, zapatuan Akara tabernak hartu zuen bertso bazkarira joandakoak. Bapo jan eta gero, bazkalostea girotzen Maialen Akizu, Aimar Goenaga eta Aratz Igartzabal bertsolariak jardun zuten, gai-jartzaile lanetan lehenengoz jardun zuten Aitor Jainaga eta Peru Alberdi bertso eskolako kide gazteen aginduetara.

www.kolorlan.com

667 54 89 16 (Ritxar)



● **tartak**  
● **enkarguak**  
**etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73



LIERNI IBARGUTXI

## Zertarako idatzi?

Beldur eta zalantzak gainditzeko aholkuz betea dago sarea. Idazteko zailtasunak ditugunerako hamaika irtenbide eskaintzen zaizkigu han eta hemen. Idazle konsagratuen ohiturak eta gomendioak barne. Nor ez da egon idatzi behar duenari buruz bai-ezean, nork ez du izan hautatu duen gaiari buruz nahikoa mamitsua ala interesatea ala orijinala ala x ez izatearen beldurra? Ala, beste barik, nork ez du sentitu berba bi bata bestearen ondoan ipintzeko bat-bateko ezintasuna, "idazlearen blokeoa" eta antzeko izenekin ezagutzen den egoera hori? Dena esanda dago. Ez da munduan ezer berririk... Sortzearen ezinak jota dagoenari burura etorriko zaizkion pentsamenduak dira. Eta ez dabil txarto, esango diote. Irakurri, bestela, klasikoak. Hor dira gizakiaren kezka eta itxaropen denak, hor dira geure-geureak, original-originalak iruditzen zitzaizkigun burutazioak. Egia da. Ez dugu ezer asmatuko. Baina gure nartzisismoa zauritu eta sortzeko grina apaldu diezaguketen moduan, gure harrotasunaren kontra eragiteko ere balio diezagukete aurrekoen lanek. Mundua ez dela gure zilborrean hasi eta bukatzen erakusten digute. Baita memoria eskasa dugula ere. Lehenago izan zirela besteak eta gure ostean ere etorriko direla. Hari ikusezin batek lotzen gaitu haiekin eta ondorengoekin. Eta geuk sortzen dugu haria. Gure sormena dela haria bera. Gure hitzen sokak elkartzten gaituela. Soka apurtuta, transmisioa etenda, zer garen ere ez dakigula. Transmisioa eten ez dadin sortzen dugula.

## Santa Zeziliaren omenezko emanaldiak

Datorren astean, martitzenean Santa Zezilia musikarien babeslearen eguna ospatuko dela eta, hainbat emanaldi berezi antolatuta dituzte datozen egunetarako. Gaur 20:30ean Debarreneko Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du Coliseoan eta, orkestrarekin bate-

ra, lehen aldiz taulara igoko den Debarreneko Abesbatzak ere jardungo du.

**Zapatu gauerdian**, berriz, urteroko martxan Eibarko Cielito Musika Bandak Santa Zeziliaren omenezko **kalejira** hasiko du. Eta **domekan** emanaldi bikoitza izango du Coliseoan, Eibarko Koru Gaztearekin batera 11:00etan eta 13:00ean eskainiko duen **"Forjarien Kanta"** ikuskizunean. **Astelehenean**, Santa Zezilia bezperan **Usartza** txistulari taldearen txanda izango da, 20:00ak aldera hasiko duten kalejirarekin. Eta Juan Bautista Gisasola **Musika Eskolako ikasleek** martitzenean ospatuko dute jaia, 17:00etan Portaletik kalejiran abiatuta eta amaieran txokolate-jana eginda.



Herenegungo DOS-ren entsegua Coliseoan.

## Zapatuan banatu zituzten Javier Agirresarobe Sariak

Zapatuan banatu zituzten "XVII. Asier Errasti Film Laburren Lehia-keta. Javier Agirresarobe Sariak" eta Javier Agirresarobe sari nagusia Manuel Aguilarren 'Mañana' izenburukoak jaso zuen. Saritutako lanak Ramon Agirre eta Klara Badiola aktore ezagunen arteko maitasun istorio tragikoa kontatzen du eta film horretan Natalie Hickey eibartarrak ere hartu du parte, atrezzo-arduradun moduan. Aurten ekitaldira joandako Javier Agirresarobek berak eman zion saria irabazleari. Bigarren saria Gonzaga Mansoren 'Hostal Edén' filmarentzat izan zen. Animaziozko lanik onena, bestalde, Coke Riobóo-ren 'Made in Spain' izan zen eta euskerazko onena, berriz, 'Beti Bezperako Koplak',




Maialen Lujanbio eta Santa Ageda koplak protagonista dituen lana. Eta Eibarko lanik onenari saria Cruz Noguerak zuzendutako 'Consejos para eliminar la caspa' eraman zuen. Zuzendariak orain dela urte bi kategoria horretako saria eskuratu zuen 'Colillas' lanarekin. Edizio honetako lehiaketarako 111 lan jaso dituzte antolatzaileek eta horietako 44 aukeratu zituzten finalista izan eta Coliseo antzokian proiektatzeko.



## Lore-dastaketa arrakastatsua

Pozarren irten ziren martitzenean ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako **lore-dastaketa** saiotik. Mentxu Amunategi bermeotarrak hainbat lore eta landareri buruzko informazio ugari eman zien parte hartu zutenei eta, horrekin batera, horietako batzuk modu ezberdinetan prestatuta probatzeko aukera ere izan zuten. Saioa motz egin zitzaizela eta, beste bat antolatzeko eskaera eginda agurtu ziren.



**Ruper Ordorika ERMUAN**

Gaur gauean, 22:15etik aurrera Ruper Ordorikak (Oñati, 1956) kontzertua emango du Ermuko Antzokian. Entzuleek ondo ezagutzen dituzten diskoak egiteaz gain, tradiziozko musika ere landu du. Oihartzun zabala izan du entzuleen artean, eta, horrenbestez, kantaririk ezagunenetakoa bat da gaur egun, berak idatzitako kantuak jotzen eta poeta enblematikoen textuak moldatzen.

**Kirol Zozketa Solidarioa ELGETAN**

Proiektu humanitarioen aldeko Kirol Zozketa Solidarioa aurkeztuko dute bihar Elgetako Kafe Antzokian, 12:00etan. Sariak kirolari ezagunek emandako materialak (100 inguru eta gehienak sinatuta) izango dira. Boletoak euro batean salduko dituzte eta zozketa 2017ko urtarrilaren 28an egingo da.



**Amodiozko gutun lehiaketa BERGARAN**

Jardun euskara elkarteak Amodiozko gutunen XXV. edizioa eta Amodiozko esaldien I. lehiaketa antolatu ditu. Gutunak urtarrilaren 8ra arte jasoko dituzte, posta arruntaz zein elektronikoki bidez [amodiozkogutunak@gmail.com](mailto:amodiozkogutunak@gmail.com) eta esaldiak, berriz, whatsappez (605712469), urtarrilaren 26ra arte. Informazio gehiagorako [www.jardun.eus](http://www.jardun.eus) begiratu.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

**hildakoak**

- Modesto Salgado Cid. 83 urte. 2016-XI-7.
- Alfredo Gonzalez Garcia. 89 urte. 2016-XI-10.
- Gregorio Gomez Hernandez. 76 urte. 2016-XI-11.
- Adolfo Suarez Conde. 58 urte. 2016-XI-13.
- Gaizka Vitoria Arano. 38 urte. 2016-XI-13.
- Florencia Marquinez Arrieta. 102 urte. 2016-XI-14.
- Santa Areitio Ogiza. 90 urte. 2016-XI-14.
- M<sup>a</sup> Paz Cid Mangana. 84 urte. 2016-XI-15.
- Isabel Olaziregi Usobiaga. 95 urte. 2016-XI-16.

**jaiotakoak**

- Younes Aiche Tnibar. 2016-X-30.
- Martin Gil Telleria. 2016-XI-9.
- Liher Landa Lopez de Viñaspre. 2016-XI-9.
- Katrin Lizarralde Arroitauregi. 2016-XI-10.
- Yusef El Bouhali El Filali. 2016-XI-11.
- Andrea Daiana Morales Aguirrez. 2016-XI-12.

**farmaziak**

- Barixakua 18  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Zapatua 19  
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 20  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Astelehena 21  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Martitzena 22  
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguaztena 23  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 24  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 25  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI - 2016AN- Iraundegi (Calbeton, 19)

**telefono jakingarriak**

SOS deiak.....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea .....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa .....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia .....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus .....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Txiaki .....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

AURREKOAREN EMAITZA

3	7	8	6	1	2	5	4	9
5	9	1	7	3	4	8	6	2
6	4	2	8	5	9	1	7	3
1	2	5	4	6	3	7	9	8
7	3	4	9	8	5	6	2	1
9	8	6	1	2	7	4	3	5
2	6	3	5	4	8	9	1	7
8	1	7	2	9	6	3	5	4
4	5	9	3	7	1	2	8	6

**SUDOKUA**

	6		8		1	4		
	4	3	5				2	
		5						
4	8					5		
			3		9			
		7					4	6
						9		
	7				5	8	1	
		8	7		6		5	

## Barixakua 18

### TAILERRA

**16:30.** "Autodefentsa Feminista". Indianokua Gaztelekuan.

### BARIXAKUAK JOLASIAN

**17:30.** Barixakuak Jolasian ekitaldia. ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

### DESFILEA

**18:00.** Moda-desfilea, El Corte Inglesak babestuta eta Trio Medianoche taldearen emanaldia. Untzagako jubilatutxean.

### BELDUR BARIK SARIAK

**18:30.** Beldur Barik jaialdia: Eibarko bideoen emanaldia eta herri mailako sariak banatzea. Portalean.

### BILERA

**19:00.** Sanandresak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandako taldeak deituta. Kultur.

### MUSIKALDIA

**20:30.** Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa. 10 euro. Coliseo antzokian.

## Zapatua 19

### HITZALDIA

**10:00.** "Eibarko mugimendu modernoko arkitektura industrialaz ezagutuz", Biharran espazioan (Ubitxa, 16-18).

### TXAPELKETA

**12:00.** Eibarko Lehen Berakatz-zopa Txapelketa, Eibarko Sarek antolatuta. Untzagan.

### MAHAI-JOKOAK

**16:00.** Mahai-joko txapelketa: mus. Kantabriako Etxearen tabernan (Jardiñetan).

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Udazken-neguko asteburueta umeeek jolasteko gune irekia HHko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

### SANTA ZEZILIA

**00:00.** Eibarko Cielito Bandaren Santa Zezilia kalejira. Untzagatik abiatuta.

## Domeka 20

### TXAPELKETA

**11:00.** Eskolarteko Bakailao Txapelketa. Untzagan.

### MUSIKALDIA

**11:00 eta 13:00.** "Forjarien kanta" musikala, Eibarko Koru Gaztearen eta Eibarko Musika Bandaren eskutik. Coliseo antzokian.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Udazken-neguko asteburueta umeeek jolasteko gune irekia HHko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

### MIKROANTZERKIA

**18:00.** "Org. amen" (Compañía la que tú me dices), "Monólogo" (Txiki). Biharran (Ubitxa 16-18).

## Astelehena 21

### IKASTEN

**10:00.** Teknoforum. Untzagako jubilatutxean (liburutegian).

### HITZALDIA

**19:00.** "Estaziño Intermodala" proiektua aurkezteko, EAJ-PNVren eskutik. Portalean.

### SANTA ZEZILIA

**20:00.** Usartza Txistulari Taldearen kalejira.

## Martitzena 22

### IKASTEN

**10:00.** "Albedrio librea edo ilusio erremediaezina" hitzaldia, J. Arizabaletaren (Batxilergoko irakasle ohia) eskutik. Armeria Eskolan.

### TAILERRA

**15:00.** "Etorkizuna eraikiz" lan-jarduna. Debegesan (Azitaingo industrialdea, 3 bis).

### IKASTEN

**16:00.** Puntu-tailerra. **17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### SANTA ZEZILIA

**17:00.** Musika Eskolako ikasleen kalejira eta txokolate-jana. Portaletik abiatuta.

### TAILERRA

**18:30.** "Marie Curie, Kimikako Nobel Saria 1931an", Pagatxaren eskutik. Portalean.

### BILERA

**19:00.** Udalaren auzorik auzoko bilera. Ipuruako jubilatutxean.

### HERRI-BATZARRA

**19:00.** Zohardia ponentziaren inguruan (18:00etatik aurrera parte-hartu.sortu.eus orrian izena ematen laguntzeko prest egongo dira). Kultur.

## Eguaztena 23

### IKASTEN

**11:00.** Kafe tertulia: "Errefuxiatuak, ahaztuak?". Untzagako jubilatutxean.

### HITZALDIA

**19:00.** "Halloween, Olentzero, karnabalak... noruntz doaz gure neguko festak?", Oier Araolazaren eskutik. Portalean.

### BILERA

**19:00.** Udalaren auzorik auzoko bilera. Urkiko elizan.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

## Eguena 24

### IKASTEN

**10:00.** "Medikuntza alternatiboa" hitzaldia, Juan Otaegiren eskutik (Homeopata, Mutua eta Igalatoriko medikua). Armeria Eskola.

### ODOL-ATERATZEA

**18:30.** Odola ateratzeko saioa odol-emeleentzat. Anbulatorioan.

### KALEETAN KANTUZ

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

## Erakusketak

### Azaroaren 20ra arte:

– I. OJANGUREN 29. ARGAZKI LEHIAKETAKO lanak. (Portalea)

### Azaroaren 30era arte:

– IÑAKI MARKAIDEREN argazkiak. (Klub Deportiboa)

– RICARDO CERRATOREN argazkiak. (El Ambigu)

– JOSE VILAREN argazkiak. (Portalea jatetxea)

### Abenduaren 4ra arte:

– IMANOL LARRABEITIREN margoak. (Untzagako Jubilatutxean)

### Abenduaren 31ra arte:

– JOSE LUIS IRIGOIENEN "India" argazkiak. (El Corte Ingles-ean)



**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, IRUNE, haraiñegun 10 urte bete zenduaz-eta. Jarraitu maitagarria izaten. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, NEREA, astelehenian 14 urte egingo dozuz-eta. Musu potolo bat famelixakuen partez.




Zorionak, ANGELA, gaur gure printzesak zortzi urte egiten diitu-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, NEREA, martitzenian zazpi urte egingo dozuz-eta! Ondo pasa eguna eta musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, LUCIA maittia, haraiñegun urtetxua bete zenduan-eta. Amatxo, aitaxo eta Martinaren partez.



Zorionak, ANDER, txapeldun, martitzenian zazpi urte egingo dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Josu eta Liher-en partez.



Ongi etorri, MARKEL Ortiz de Ginea, hillaren 7tik gurekin zagoz-eta. Zorionak Nuria eta Andoni gurasueri famelixa guztiaren eta, batez be, IRAIA eta MARTXEL lehengusuen partez.



Zorionak, AIZEA, aurreko domekan sei urte egin zenduaz-eta. Etxeko guztien eta, batez be, Maialen zure ahiztiaren partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**

**19an: 17:00, 19:45, 22:30**

**20an: 17:00, 20:00**

**21ean: 20:00**

**"No culpes al karma..."**

Zuzendaria: Maria Ripoll



**(2 ARETOAN)**

**19an: 19:45, 22:30**

**20an: 20:00**

**21ean: 20:00**

**"La bailarina"**

Zuzendaria: Steph. Di Giusto



**(ANTZOKIAN)**

**19an: 17:00, 19:45, 22:30**

**20an: 17:00, 20:00**

**21ean: 20:00**

**"Animales fantásticos"**

Zuzendaria: David Yates



**(2 ARETOAN)**

**19an: 17:00**

**20an: 17:00,**

**"Peppa Pig. Botas de oro"**

Zuzendaria: Edward Zwick



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Etxebizitza salgai, aldamenen duen lokala etxebizitzari emateko baimenarekin. 2 logela, sukaldia eta komuna. Berrizteko. 90 m<sup>2</sup>. Tel. 605-716777.

– 42 m<sup>2</sup>ko mobil-homea salgai Bañaresen (Errioxa). Teilatu bikoitza. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna duxarekin. 30 m<sup>2</sup>ko terraza toloarekin. Aire egokitua. 25.000 euro, negoziagarriak. Tel. 688-801329.

### 1.2. Errentan

– Logela alokagai Eibarren, sukaldia erabiltzeko eskubidearekin. Tel. 695-716229. Amaia.

– Buhardilla edo apartamentu txikia hartuko nuke alokairuan. 1 edo 2 logelakoa. Tel. 602-377921.

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 660-047305.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Taberna traspasatzen da Ipuruan, foball-zelaiaren bidean. Tel. 680-871529 eta 943-256110.

### 3.2. Errentan

– 18 urteko gorako gazteentzat aukerako lokala alokagai. Ondo prestatutakoa. Tel. 600-890245.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta dendan jarduteko. Tel. 632-426847.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-193518.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 634-256471.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 631-221729.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-420183.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-488692.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 695-347162.

– Emakumea eskaintzen da arratsaldeko nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko etab. Tel. 658-458061.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskolara eramateko. Tel. 691-606774.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauze ere) eta garbiketara lanetarako. Tel. 629-817299.

– Mutila eskaintzen da garbiketara lanetarako eta nagusiei laguntzeko. Tel. 629-817299.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 632-139806.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 658-288240.

– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 943-531548 eta 632-309899.

– Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile jarduteko eta pegorak edo soziedadek garbitzeko. Tel. 636-882838.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 626-197217.

– Emakumea eskaintzen da 13:00etatik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 620-757528.

– Neska eskaintzen da arratsaldeko umeak zaintzeko, eurekin ingelesez jarduteko aukerarekin. Tel. 629-533695. Isabel.

– Mutila eskaintzen da elektrizista lanak egiteko. Tel. 632-695273.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, asteburuetan barne. Baita ospitalean ere. Tel. 632-032798.

– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak, gaixoak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-230281.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 628-318570.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-683176.

## 4.2. Langile bila

– Sukalde-laguntzailea behar da Portalea jatetxean, jornada erdirako (arratsalde). Esperientziarekin. Tel. 943-206868.

– Eibarko enpresak bi tornero hartuko lituzke. Pieza bakarrak edo serie motzekoak fabrikatzeko, eta baita buru mugikorreko dekoletaje tornoak. Mekanizatuaren programa prestatu eta gauzatu beharko du. Esperientziaren arabera soldata. Behinbetiko kontratua. Bidali kurrikuluma: jazaga2000@gmail.com

– Kamarera/o behar da Eibarren jornada osorako. Bidali kurrikuluma: eibarkafe@gmail.com.

– Sukaldaria behar da Eibarko jatetxe batean. Astean bi egun eta erdi jai. Tel. 604-203896.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– DBH eta Batxilergoko Zientzien arloko irakaslea behar da Bergarako akademia batean lan egiteko. Bidali kurrikuluma: 3d3akademia@gmail.com

### 5.2. Eskaintzak

– Irakaslea den neska euskalduna eskaintzen da IH eta DBH mailetan klase partikularrak emateko. Tel. 699-495279.

– DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloetako Matematika, Fisika, Kimika, Kontabilitatea eta Ekonomia klase partikularrak ematen dira. Tel. 685-739709.

– LHtik DBH 2. mailara arteko ikasleei zuzendutako klase partikularrak ematen ditut. Tel. 616-690620.

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

– LHko ikasleei zuzendutako klase partikularrak ematen ditut. Tel. 605-746908.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Etxeko tresna eta hainbat material saltzen ditut. Tel. 660-833346.

– Ohe artikulatua salgai (gora, behera eta alboetara mugitzeko aukera du). Egurrezkoa eta alboko hesiekin. Tel. 655-737560 eta 22joska@gmail.com

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Aurreko asteburuan pailazok eskainitako emanaldietan honako gauzak jaso genituen bertan: Volkswagen bateko giltzak (Udaltzaingoa laga genituen), aterkia, mantaxoa, umearen karrorako eurien-tzako estalkia eta mobila kargatzeko entxufeak. Tel. 943-200918.

Ginorik onenean

Calbeton, 6

15.

urteurrena

ESKERRIK  
ASKO



Zure enpresa erakusteko  
leku aparta


# GIDA

KOMERTZIALA 2017

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta  
herriko komertzio, enpresa,  
bulego, ikastetxe, osasun-  
zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus  
943 20 67 76  
www.etakitto.eus





# EIBAR

# HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

- ◆ KALITATEA PREZIORIK ONENEAN, TRATAMENDU GUZTIETAN
- ◆ ARRETA PERTSONALIZATUA, HURBILA ETA PROFESIONALA
- ◆ HAGINLARI KOLEGIATUAK, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIAREKIN
- ◆ ODONTOPIEDIATRIA ZERBITZUA, HAURDUNALDITIK | KLINIKAN KONTSULTATU



R.P.S. 259/15  
MAITANE G. INIGUEZ  
ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA

## ZERBITZU GUZTIAK KLINIKAN BERTAN

- ◆ ODONTOLOGIA OROKORRA
- ◆ HAUR-ODONTOLOGIA
- ◆ HORTZ ZURITZEA ETA ESTETIKA

- ORTODONTZIA ◆
- PROTESI FIJOA ETA KENTZEKOA ◆
- ZIRUGIA ETA INPLANTEAK ◆

SAN AGUSTIN KALEA, 4 BEHEA EZKERRA, 20600 EIBAR

TELEFONOA 943 537 076  
www.eibarclinicadental.com

MUGIKORRA 688 884 808  
info@eibarclinicadental.com